

**BIZIKIDETASUN DEMOKRATIKOA  
ETA INDARKERIA  
DESLEGITIMATZEA (2010 - 2011)**

**Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko  
Hezkuntzako Euskal Plana  
Birformulatzea (2008/2011).**

2010-5-31



## AURKIBIDEA

<b>1.</b>	<b>Sarrera .....</b>	<b>3</b>
<b>2.</b>	<b>Zioen azalpena .....</b>	<b>9</b>
2.1	Agiri hau egiteko arrazoiak.....	9
2.2	Testuinguru sozial, politiko eta instituzionalaren berrikuntzak.....	23
2.3	Planaren birformulazioaren orientabide oinarrikoa .....	24
<b>3.</b>	<b>Azalpen-zatia .....</b>	<b>29</b>
<b>4.</b>	<b>Zati substantiboa: printzipioak eta helburuak berrikustea.....</b>	<b>32</b>
4.1	Birformulazioaren helburua .....	33
4.2	Printzipio gidari nagusiak .....	34
4.3	Printzipio gidari substantiboak.....	36
4.4	Antolamendu-printzipio gidariak .....	44
4.5	Ildo estrategikoak, Helburu orokorrak eta Helburu espezifikoak.....	47
4.6	Birformulazioa laburtuta .....	49
<b>5.</b>	<b>Zati operatiboa: planaren eragileak, antolaketa eta kudeaketa.....</b>	<b>52</b>
5.1	Erakunde-eragileak, eta gizarte zibilaren, komunikabideen eta ikastetxeen papera	52
5.2	Planaren kudeaketa eta koordinaziorako organoak .....	54
5.3	Programatutako ekintzen segimendua eta ebaluazioa.....	56
5.4	Aurrekontua.....	60
<b>6.</b>	<b>Zati operatiboa: ekintzen birformulazioa .....</b>	<b>61</b>
<b>7.</b>	<b>Zati operatiboa: ildo estrategikoetan bildutako ekintzak .....</b>	<b>65</b>
<b>8.</b>	<b>Zati operatiboa: Programa estrategikoen arabera bildutako ekintzak .....</b>	<b>70</b>
<b>9.</b>	<b>Zati operatiboa: programa sektorialak.....</b>	<b>76</b>
9.1	Lehendakaritza.....	76
9.2	Justizia eta Herri Administrazio Saila .....	77
9.3	Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.....	79



9.4	Kultura Saila.....	87
9.5	Herrizaingo Saila.....	89
9.6	Foru-aldundiak eta Eudel.....	91
9.6.1.	Arabako Foru Aldundia.....	91
9.6.2.	Bizkaiko Foru Aldundia.....	93
9.6.3	Gipuzkoako Foru Aldundia.....	97
9.6.4	Udalak-Eudel.....	101
10.	Dokumentazioa.....	104
11.	Eranskina. Jardueren fitxa banakotuak.....	105

## 1. Sarrera

**Euskadiko herritarrak libreak izatea eta denak eskubide eta betebeharrak izatea** du helburu gobernua, eta helburu horrek gidatuko du jardun politikoa. Sistema demokratikoa eta zuzenbide-estatu defenatuta bakarrik lor daiteke helburu horiek bermatzea.

Demokrazian sakontzea eta tolerantziaren, pluraltasunaren eta gutxiengo politikoen defentsa funtsezkoak dira bizikidetasun demokratikoa bermatzeko.

Zalantzarik gabe, terrorismoak gaur egun oraindik ere irautea herritarren askatasunari egindako eraso zuzena da, herritarren iritzi librea ukatzeko modurik muturrenekoa. **ETAren terrorismoari amaiera ematea funtsezkoa da askatasuna ezartzeko.**

Terrorismoa politikoki, sozialki eta etikoki deslegitimatzea oso sakoneko kezka da, eta euskal gizartearen gehiengoak hala sentitzen du. Halaber, lehentasunezko helburua da gobernu honentzat, ETAren terrorismoari amaiera emateko helburuarekin batera, jakina.

Gobernu honek, terrorismoaren aurkako borroka, elkarren osagarriak diren hiru esparrutan oinarritzen du: terroristak jazartzea eta atxilotzea, zuzenbide-estatuak horretarako ematen dituen legezko bitarteko guztiak erabiliz; terrorismoaren bortizkeria babesten eta justifikatzen duten jarrera eta jokabideak kritikatzeko eta horiei aurre egiteko; eta balio demokratikoak sustatzea eta orokortzea.

Zeregin neketsua da hori, gizarte honen kontzientzia kolektiboari eragiten diona, eta denon artean egin behar diogu aurre, borondate irmoz, kementsu,



desberdinen artean lan eginez eta heldutasunez. Gure gizartean bizikidetasun egokia izan dadin, euskal herritarrok barneratu egin behar ditugu balio demokratikoak eta asmatu egin behar dugu gure artean oraindik ere nolabait justifikatzen diren biolentzia-adierazpideak deslegitimatzeke egiten dugun ahaleginean; oso garrantzitsua da hori. Hori dela eta, planteatutako erronka honi eraginkortasunez erantzun nahi izanez gero, gobernuak edozein ekintza martxan jartzeko, nahitaezkoa da elkarlana, erakundeen arteko lana, oinarri politiko sendoetan eta printzipio moral argietan oinarrituta.

**Biolentziaren deslegitimazioa eta balio demokratikoetan heztea faktore erabakigarriak dira gizartea berdintasunean eta aniztasunean oinarritutako bizikidetasun bidezkoago baterako prestatzeko, aniztasunaren onarpena gizarte honen nortasun-ikur nagusia baita.** Euskal gizartean askatasun zibilak sendotzeko eta kultura demokratikoa areagotzeko, lehenengo pausua, bakarra izan ez arren, biolentzia terroristaren deslegitimazio etiko, sozial eta politikoan aurrera egitea da. Baina balio demokratikoak sakontzeko orduan, nekez egingo dugu aurrera, baldin eta ez badugu sistema demokratikoa erabakigarritasunez eta modu nabarmenean defendatzen eta aldarrikatzen.

Azpimarratu beharra dago eskubide eta askatasunek Zuzenbidean, Legearen errespetuan eta sistema demokratikoaren defentsan oinarrituta egon behar dutela.

Hori dela eta, gure erakunde demokratikoak oso argiak izan dira, eta aspalditik ari dira irmo jokatzeko arlo honetan, batez ere:

**Lehendakaria;** hona hemen, esate baterako, inbestidura ekitaldian esandako hitzak: "Terrorismoa desagertzea nahi badugu, ez da nahikoa terroristak atxilotzea; horrezaz gainera, aurre egin behar diegu bere adierazpen publikoei eta zilegitasun soziala kentzea lortu behar dugu batez ere irakaskuntzan, elkarteetan eta hedabideetan. Eta ziurtatzen dizuet gobernu honek ahal duen guztia egingo duela hori lortzeko".

Halaber, **Eusko Legebiltzarrak**, IX. Legegintzaldia eratu ondoren, 30/2009 lege besteko proposamena onartu zuen, eta proposamen horren bidez, Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatu zion lehenbailehen ekar zezala Legebiltzarrera Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzako 2008-2011 Plan birformatua, bertan argiago ager dadin terrorismoaren deslegitimazio etiko, sozial eta politikoa, oinarrizko eskubideak defendatzen dituen sistema indartzeko eta terrorismoaren biktimen memoria, duintasuna eta justizia bultzatzeko printzipio etiko eta demokratiko gisa.



Bereziki nabarmentzekoa da **4/2008 Legea, Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egitekoa**, garrantzi politiko eta historiko handikoa baita. Babes esanguratsua izan zuen Legebiltzarrean lege horrek eta “xede da terrorismoaren biktimei aitorpena egitea eta ekintza terroristaren bat nozitu duten pertsonen babesa eta laguntza emateko sistema bat ezartzea, ekintza terroristarekin lotutako mota guztietako kalteak erreparatzeko eta leuntzeko”.

Lege horren 5.3. artikuluan, erreparazio-neurriak direla-eta, hauxe adierazi da: *“Erreparazio-neurrietan sartzen da, halaber, hainbat jarduera publiko bultzatzea, biktimei ordain morala emateko eta haien duintasuna, izen ona eta eskubideak jendaurrean lehengoratzeko. Horrela, honako hauek sustatuko dira biktimekin adostuta eta, hala badagokio, haien elkarteekin: omenaldiak egitea, oroigarriak altxatzea, terrorismoaren biktimei aitorpena egiteko eta horiekiko enpatia izateko tokiko ekimenak sortzea, **bakerako eta elkarbizitzarako hezkuntza-proiektuetan biktimen lekukotzak egotea, bai eta terrorismoaren biktimei babesa eta aitorpen sozial, etiko eta politikoa erakusteko izaera sinbolikoa duten bestelako adierazpideak izatea ere***”.

Bestetik, 9.3. artikuluan, “b” idatz-zatian, berariaz nabarmendu denez, *“euskal botere publikoek **hezkuntza-sistemaren maila guztietan bakearen eta giza eskubideen aldeko heziketa eta balio demokratikoen sustapena bultzatuko dute**”*.

Horretaz gain, zioen azalpenean jasotako gogoeta bat erantsi beharko genuke; hona hemen hitzez hitz: *“gure elkarbizitzaren etorkizuna biktimekiko memorian oinarrituta eraiki beharko da, halabeharrez. Gehien sufritu dutenak oroitu nahi ditugu, historia, gure historia, ez dadin errepika. Terrorismoaren biktimei aitorpena egitea, horrenbestez, justizia-ekintza bat da, baina baita gizarte baten egiazko adierazpena ere, gure gizarteak ez du-eta berriz bizi nahi haiek nozitutako bidegabeko sufrimendua.”*

Aurrekari horiek ikusita, gobernua ziur dago terrorismoaren biktimen memoria bultzatuz tolerantzia eta euskal gizartearen aniztasun politikoa babesten direla, izan ere, biktima bihurtu dira, hain zuzen ere, nolabait aniztasun hori ordezkatzegatik, erasotzaileen ikuspegi uniforme eta homogeneoan sartzen ez zirelako. Erasoaren arrazoia, modu horretan, balio demokratikoen osagai bihurtzen da.

Premisa horiek kontuan izanda, Eusko Jaurlaritzak **Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzako Euskal Planaren (2008-2011)** berrirakurketa oso bat egin du, helburuarekin koherentea dena, eta agiri honen bidez birformulatu egin du, testu bateginaren forma emanez. Eta hori egin du, bai definizioan bertan bai marko orokorrean, ez datorrelako bat gobernu talde berriak daukan planteamenduarekin. Planak modu zabalean definitzen zuen



Giza Eskubideetan oinarritutako eta Giza Eskubideetarako hezkuntzaren eta bakearen aldeko hezkuntzaren esparrua. Giza Eskubideetan oinarritutako hezkuntzari dagokionez, giza eskubideen arloan kultura unibertsala sortzera bideratutako trebatze-, hedatze- eta informazio-jarduerak aipatzen dira. Bakearen aldeko hezkuntza dela-eta, bake positiboaren ikuspegitik, helburu nagusia pertsona baketsuak lortzea izanda, balioetan oinarritutako hezkuntza eta hezkuntza etikoa, hezkuntza soziala eta pertsonala, gatazkan oinarritutako hezkuntza, desarmearen aldeko hezkuntza, kulturen arteko hezkuntza, garapen iraunkorrerako hezkuntza... azaltzen dira. Kontzeptuzko oinarri horrekin, estrategia bikoitza ezarri zen: giza eskubideetan oinarritutako eta giza eskubideetarako hezkuntza-programa orokor bat eta, bestetik, programa espezifikoago bat, Euskadiko errealitateari egokituko zitzaion bakean oinarrituriko hezkuntza-estrategia pixkanaka zehaztuko zuena. Bada, estrategia bikoitz horren eraginez, 2008-2011 Planaren bidez benetan egindakoa aintzat hartuta, azken batean espezifikoa dena (bakearen aldeko hezkuntza) giza eskubideetan oinarritutako eta giza eskubideetarako hezkuntzan egindako esku-hartze orokorrean disolbatuta geratu da. **Horrek ez du esan nahi giza eskubideen arloan esku-hartzeko esparru orokorra alde batera uzteko asmoa dagoenik, izan ere, eutsi egingo zaio esparru orokor horri, baina kontua da Euskadik bizi duen errealitatea aintzat hartuta –biolentzia terroristaren zartadak eta biolentzia legitimatzen dutenak jasan behar ditu oraindik-, komenigarria dela arreta eta lehentasun osoa ematea bizikidetasun demokratikoaren arloan eta biolentzia deslegitimatzearen arloan egin beharreko esku-hartzeari, hain zuzen ere, bizikidetasun demokratikoko arazoei erantzunez aurrera egin ahal izango delako bakearen eta giza eskubideen aldeko kulturaren arloan.**

Plana birformulatzea beharrezkoa, erabilgarria eta egokia izango da errotik ezabatzeko edozein helburu politiko lortzeko biolentzia erabiltzea legitimatzen duten planteamenduak. Baina, batez ere, gizarteari orokorrean eta, batez ere, belaunaldi berriei baliabideak eta trebetasunak eskainiko dizkie, gizarte demokratiko eta bidezko batean bultzatu eta gorde beharreko tolerantzia-kulturarekin eta balioekin bat datozen ohitura eta jarrera etikoak landu ahal izateko.

***Bizikidetasun demokratikoa sustatzeko eta indarkeria deslegitimatzeko planak helburu argia dauka:*** herritarren artean jarrera aldaketa bultzatzea, sistema demokratikoa elkarrekin askatasunean bizitzeko berme gisa onartzeko. Demokrazia eta demokrazia horren oinarri diren erakunde politikoak bizikidetasunaren bermatzaile dira. Bizikidetasun demokratikoa bateragarria da indarrean dagoen esparru juridikoa barik beste bat defendatzearekin edo dauden erakundeak barik beste batzuk defendatzearekin, baldin eta modu baketsuan eta demokratikoki defendatzen bada hori. Horrela, bada, erakunde demokratikoak legitimatzea eta tolerantzia



eta askatasun pertsonalaren balioak defendatzea funtsezkoak dira biolentzia terrorista desagerrarazteko eta errotik deslegitimatzeke. Eta, hain zuzen ere, helburu hori nabarmentzeko, *Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzako Planean* zehaztutakoei uko egin gabe –esparru berri honetan ere sartuko baitira- beste izen bat eman zaio Planari, eta, horrela, **“Bizikidetasun Demokratikoa Sustatzeko eta Indarkeria Deslegitimatzeke”** Plana deituko da.

Ildo horretatik, testu bategin honetan jasotako aurreikuspenak eta ekintzak aplikatuta, beste bultzada bat emango zaio zenbait jarrera eta iritzi behin betiko baztertzeko helburuari; izan ere, giza bizitza, sistema demokratikoa eta tolerantzia, aniztasun politikoa eta askatasun pertsonalak onartzen ez dituzten jarrera eta iritziak, biolentzia terrorista justifikatzeko bidea ireki dezaketena, alde batera utzi beharrekoak dira. Plan honetako aurreikuspen eta ekintzek, kontraesanean sartu barik, lehentasun argi bat ezartzen dute eta beste ekarpen bat egiten diete *Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzako Planean* jasotako printzipio eta jardueri.

Horrela, Planaren birformulazio hau ezinbesteko baliabidea izango da balio etikoetan eta demokratikoetan oinarritutako benetako hezkuntzarentzat. Abiapuntua izango da eskubide demokratikoetan eta giza eskubideetan oinarritutako benetako heziketari zorrotasunez eta seriotasunez heltzeko, heziketa hori esanahirik zabal eta zintzoenaren arabera harturik, eta, horrekin batera, eskubide horiek izateko modua ematen duten erakundeak defendatzeko.

Planaren birformulazioak, gobernu honek orain aurkezten duen “Bizikidetasun demokratikoa eta indarkeriaren deslegitimazioa” izeneko testu bategin honetan, berrikuntza berezia dakar, eta planaren beraren printzipio gidarietakoa bihurtzen du: erakunde demokratikoen errespetua eta defentsa, bai eta aniztasuna eta tolerantzia bezalako balio demokratikoen defentsa ere, bakezko bizikidetasunerako eta indarkeria terrorista justifikatzen duten jarrera totalitarioak ezabatzeko zutabe dira. Hala, biktimen lekukotza eta haien memoria indarkeria bidegabearen eta bizitzeko eskubidearen urraketaren ondorio dramatikoaren oroigarri iraunkor bihurtzen dira; berebat, balio demokratikoak bertan behera utzi izanaren oroigarri. Aldi berean, hausnarketa eragingo dute euskal gizartean, terrorismoaren kontrako adostasun soziala lortzearen.

Erakunde demokratikoen eskaera hori, tolerantziaren eta aniztasun politikoaren defentsarekin batera, gobernu honek euskal herritarren arteko bizikidetasun demokratikoa lortzearen gauzatuko dituen ekintzen gidari da.



Biktimak dira euskal gizartearen askotarikotasuna ez onartzearen agerpiderik erradikalena, eta, hala, tolerantzian hezteak duen alderdi moral behinekoena geratzen da agerian, biktimek aukera ematen digutenez gero zertzuk pairatu dituzten jakiteko. Biolentziaren biktimek eskoletan emango duten lekukotza aldarri bat da, guztien arteko bizikidetasuna hobetzen laguntzeko balioak eta ohiturak azaleratzeko balio behar diguna; lekukotza hori Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko 4/2008 Legeak berak aurreikusten du 5.3 artikuluan. Garrantzi nabarmena du horrek euskal gizartearen bilakaera historikoari erreparatzen badiogu, bereziki, gobernu honek egin nahi duen bezala, etorkizunari begiratzen badiogu. Biktimak gure bizikidetasun soziala hobetzeko prozesu bateko eragile aktibo izango dira. Giza harremanak berreraikitze prozesuetan lankide eta laguntzaile izateko duten ahalmen hori garatzea beharrezkoa da intolerantziarekin, gorrotoarekin eta indarkeriarekin luzaroegi bizi izan den herri baterako.

Horrez gain, adierazi ahal izango genuke ezen denboran zehar indarkeria terroristari buruz pilatu dugun sentikortasun bereziak aukera ematen digula zehaztasun handiagoz juzgatzeko beste funtsezko eskubide batzuen urratzea. Denok dakigu, urte askotako eskarmentu zorigaitzokoaren poderioz, nola usteltzen den bizikidetasuna herritar batzuek besteen kontra indarkeria darabiltenean.

Are eta gehiago: *Bizikidetasun Demokratikoa Sustatzeko eta Indarkeria Deslegitimatze Plan* honetan biktimak erdigune izatea da garrantzitsua, eta, gainera, aukera ematen du hurbiltasunarekin eta enpatiarekin indarkeria terroristaren ondorioei aurre egiteko, eta, hala, indarkeriaren agerkera guztiei eraginkortasun eta zuhurtasun handiagoz heltzeko.

Hori dela eta, gobernuak, birformulazio honen bitartez, planaren jarduna gizarte-bizitzaren eremu guztietara hedatzen sakondu nahi du. Horretarako, hezkuntza-sistematik hasi nahi du, baina, halaber, elkarte-sarea, familia eta hedabide publikoak hartu nahi ditu.

Azken batean, gobernuak, 2008-2011 planaren birformulazioaren bitartez, plana indarrean izango den bitartean planaren kudeaketak zein alderdi izango dituen lehentasunezko azpimarratu nahi du, planaren erantzukizuna dagokionez gero.





## 2. Zioen azalpena

### 2.1 Agiri hau egiteko arrazoiak

Euskal Autonomia Erkidegoak badu, 2008. urteaz geroztik, Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzako Euskal Plana (2008-2011), lehenbizikoa. Agiri hori agertzea bera bakarrik, autogobernuak ia hiru hamarraldi bete dituenean biolentzia terroristaren zama eta guzti, aurrerapausoa izan zen Euskal Autonomia Erkidegoko gizarteak terrorismo ororen deslegitimazioaren alde -eta baita, jakina, tamalez gurean oraindik bizirik dirauen ETaren terrorismoaren deslegitimazioaren alde- hartutako konpromisoaren bidean, nahiz eta berandu etorri.

**Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzako Euskal Planaren oinarri formalek, 2008-2001 Planaren azalpen-zatiaren 2.1, 2.2, 2.3 eta 2.4 idatz-zatietan definituta dauden eran, balorazio oso positiboa merezi dute. Bereziki honako hauek:**

- Bizikidetzaren demokratikorako hezkuntza, ekintza sistematikoa, egonkor eta baloragarrien multzo gisa ulertzea.
- Bakerako hezkuntzan lehenago izandako ekimenek jarraipena izateko eta ekimen horiek sistematizatzeko borondatea.
- NBEko Giza Eskubideen Goi Komisarioak eta gisako organismoek emandako gomendioak aintzat hartzea.
- Gobernuaren beraren ekintza osoa sail artekoa eta erakunde artekoa izatea.
- Gizarteari parte hartzeko aukera ematea, gizarte-erakundeen eta herri-administrazioen arteko elkarrikeria bizia eta erraza izan dadin.

2008-2011 planaren paragrafo horien edukiaren funtsa dakargu hona, esku-hartzeko esparrua zein den ulertzeko modua errazte aldera:

- Bizikidetasun demokratikorako hezkuntza, ekintza sistematikoa, egonkor eta baloragarrien multzo gisa ulertzea bera.

*Justiziaren, askatasunaren, berdintasunaren eta elkartasunaren oinarrien gainean eraiki nahi den edozein gizarte- eta politika-antolamendu eredurentzat giza eskubideak eta bakea ezinbesteko erreferentzia dira. Pertsona guztien giza duintasuna da balio gorena eta gizabanako bakoitzak gizartean dituen eskubide eta betebeharrak guztiak lotzen hasteko abiapuntua. Betiere gizabanakoen gailentasuna zalantzan jarri gabe, eta gizarte- eta erakunde-arkitektura gizakien garapenera eta sustapenera bideratuz.*



Honako hau izan daiteke **Giza Eskubideetan oinarritutako –eta Giza Eskubideetarako– Hezkuntzaren** definizioa: “Giza eskubideen arloan kultura unibertsala sortzera bideratutako jardueren multzoa, trebatzeko, hedatzeko eta informatzeko jardueren multzoa, alegia. Jarduera horiek jakintzak transmitituz eta jarrerak moldatuz egiten dira, eta honako helburu hauek dituzte:

- a) Giza eskubideak eta funtsezko askatasunak ezagutzea eta horien errespetua indartzea;
- b) Giza nortasuna eta gizakiaren duintasunaren zentzua erabat garatzea;
- c) Sexuen arteko elkar ulertzea, tolerantzia eta berdintasuna sustatzea, eta pertsona, herrialde, herri indigena eta talde guztien arteko adiskidetasuna bultzatzea, edozein dela ere talde horien arraza, nazio, etnia, erlijio eta hizkuntza;
- d) Pertsona guztiek gizarte aske batean parte hartzeko aukera izan dezaten erraztea;
- e) Nazio Batuek bakeari eusteko abian jarritako jarduerak areagotzea.”

Azken helburua da kultura bat lortzea, giza eskubideen funtsa diren oinarritzko balioekiko atxikimendua eta giza eskubide horiek eraso ororen aurka defendatzeko erabakitasuna eragingo dituen, eskubide horiek definitzen baitute gure giza izaera.

**Bakearen aldeko Hezkuntzak**, zentzu zabalean, barnean hartzen du eta bat egiten du Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzarekin. Izan ere, bakearen aldeko hezkuntza, bake positibo gisa ulertua, zuzeneko indarkeriarik eza (bake negatiboa) baino askoz gehiago da. Horrela, beraz, zuzeneko indarkeriaren maila txiki baterako eta justiziaren eta adiskidetze-kulturaren maila handi baterako joera sustatzera zuzenduta dago bakearen aldeko hezkuntza. Ildo horretan, indarkeria estrukturala eta kulturala desagerraraztea bilatzen da eta, aldi berean, gizarte-oreka eta guztien eskubideekiko errespetua lortu nahi da, berdintasunaren, justiziaren eta elkartasunaren lehentasunezko balioetan oinarrituta.

Bakearen aldeko Hezkuntzak askotariko hezkuntza-alderdi osagarriak biltzen ditu:

- Balioetan oinarritutako hezkuntza eta hezkuntza etikoa.
- Hezkuntza soziala eta pertsonala.
- Gatazkan oinarritutako hezkuntza.
- Ulermen globalerako hezkuntza.
- Desarmearen aldeko hezkuntza.
- Kulturen arteko hezkuntza.
- Garapen iraunkorrerako hezkuntza

Honako helburu nagusi hau dute guztiek: pertsona baketsuak lortzea eta, era horretan, tolerantzian, errespetuan, pertsonen duintasunean eta garapenean, egian eta gizarte-justizian oinarritutako gizarte bat eraikitzea.

Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntza ez da era abstraktuan proiektatzen. Aitzitik, gizarte-errealitateak ezarritako premiei eta lehentasunei erantzun behar die. Ikuspuntu horretatik, Planaren funtsezko lehentasunetako bat terrorismoaren deslegitimazioa da.

Nolanahi ere, funtsezkoa da lehentasunezko helburuak eta erabili beharreko baliabideak ez nahastea. Hezkuntzan gauzatu beharreko ekintzak, egiturazkoak eta irauteko asmatuak, ezin dira zatikatu helburuen arabera. Eta are eta gutxiago oinarritzko eskubideekin izan behar duen lotura zuzena dela eta, giza eskubideek zatiezina eta elkarrekin lotuak izan behar dutelako agindua ezinbestean bete behar den arloetan. Hala bada, plan hau ezin da izan eduki zehatzei buruzko informazio-kanpaina hutsa. Hezkuntzan egin beharreko esku-hartzeak hainbat adin-tartetarako izan behar du (lehen hezkuntza, bigarren



hezkuntza, derrigorrezkoaren osteko hezkuntza, unibertsitateko hezkuntza, helduaroa...) eta hainbat arlotarako (hezkuntza formala, ez-formala, informala). Horrek betebeharrak bat dakar: hezkuntzan egin beharreko esku-hartzeak egituratua izan behar du, eta bortizkeria-kultura orori ekiterakoan elkarrekin lotzen diren faktore eta alderdi guztiak hartu behar ditu bere barnean, edozein dela ere bortizkeriazko kultura horrek, leku bakoitzean eta garai bakoitzean, agertzen duen indarra.

Horrela, beraz, bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntza, lotutako hainbat kontzeptuzko planoren gainean proiektatu behar da, beharrezkoa den sinbiosi emankor bat lortzeko. Izan ere, globalizazioaren fenomenoek, nazioarteko pertsonen mugimenduek eta ingurumenean eragiteko dugun gero eta ahalmen handigoak Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntza fenomeno horietatik eratorritako giza aldagaiekin osatzera behartzen gaituzte. Zentzu horretan, Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzak garapenerako hezkuntza, kultura arteko hezkuntza eta ingurumen-hezkuntza izan behar du aldi berean, hiru adierazpenen zentzurik zabalenean.

Modu horretan, gaur egun ezinezkoa da Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzaren programa bat egitea Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko bidegabekeriaren egiturazko arazoak aztertu gabe. Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzak garapenaren alderdia eransten du, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak, eskubide zibil eta politikoen adinako premia eta maila baitute, nazioartean adostu denaren arabera. Gaur egun ezinezkoa da giza eskubideetan hezteko nazioarteko elkartasunean eta elkartasun horrek eragiten duen tokiko adierazpenean hezi gabe, hau da, euskal gizartearen moduko gizarte garatuetan gertatzen diren laugarren munduko egoeren arretan.

Era berean, guztiz beharrezkoa da euskal gizartea gaur egun gizarte plurala dela aintzat hartzea, eta gero eta kultur, erlijio eta hizkuntza aniztasun handiagoa duela. Ezberdinen arteko bizikidetasunak gizarte eskubideen interpretazio tradizionala berriz aztertzeko beharra sortzen du. Interpretazio berri hori inklusiboa eta kultura artekoa izango da. Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzak ezin du multikulturaltasunaren aldagaia ukatu eta kulturarteko konponbideak bultzatu behar ditu ezberdintasunak errespetatu eta babestuz, eta gizartearen kultur adierazpen anitzen artean elkarriketa bultzatuz. Aniztasuna, borroka eragiten duen alderdia izan beharrean, gure gizartearen aberastasuna eta pixkanaka irekitzea eragingo duen faktore gisa hartu behar da, gatazkei heltzeko eta giza eskubideak betetzeko formula berriak baliatuz.

Azkenik, gaur egungo nazioarteko errealitateak Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntza gizakiok bizi garen ingurumenari buruzko parametroekin planteatzera behartzen gaitu. Hezkuntzak ingurumen-hezkuntza izan beharko du, bizitza ekologikora bideratutakoa, etorkizuneko belaunaldientzat ingurumena babesteko. Bestalde, naturarekiko errespetua balio sendoa da, eta horren gainean eraiki daiteke bizitzarekiko errespetuan eta bizitza defendatzen duten munduko kulturen jarrera desberdinekiko errespetuan oinarritutako kultura. Esparru horretan, gizarte garatuek, eta horien artean euskal gizarteak, bide garrantzitsua egin behar dute oraindik. Bide hori, hein batean, Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzarekin hasten da.

Nolanahi ere, bakean, balio demokratikoetan eta giza eskubideetan oinarrituriko Hezkuntzaren balio nagusia pertsonen duintasuna da. Horrela, pertsonak, beren existentziarekiko errespeturik handiena bilatzen duen hezkuntza-politika horren balio nagusi dira. Existentzia gisa ulertzen da gizakion bizitza



bera, giza eskubideek babestu beharreko lehenengo gauza eta berezko balioa baita. Bizitza izango da beraz, Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko edozein Hezkuntza-politika eraikitzeko oinarria. Kontzeptu horretan bilduko da ez pertsona guztien bizitza bakarrik, abiapuntu utziezin gisa ulertuta, baizik eta bizitzeko baldintza duinak eta horretarako ingurumen egokia aintzat hartuko dituen bizitzaren kontzeptu zabalago bat ere.

Gizakion existentziak aipatzen ditugunean, bizitzak bere alderdi sozialean, politikoan, zibikoan eta kulturean hartzen dituen formez ari gara. Euskal gizartea osatzen dugun pertsonok pentsatzeko, sentitzeko, hitz egiteko edo kultura adierazteko hainbat modu ditugu. Denborarekin, gizartea gero eta askotarikoagoa da, eta, gizarte horretan, desberdinak direnen arteko elkarreaginak gero eta ohikoagoak dira. Gizarte horretan, elkarrekin bizi dira, gure mesederako, hainbat filosofia- eta erlijio-ikusmolde, hainbat kultura eta dagozkien balio-eskalak, bakoitzaren jatorriaren edo gizarte-sektorearen arabera bereziak. Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzaren bidez, gizakion bizitza babestea ez ezik -bizitza hori existentzia huts gisa ulertuta-, gizarte ireki eta tolerante batean gizakiek dituzten bizimodu desberdinak errespetatzea eta babestea ere lortu nahi da.

- Bakerako hezkuntzan lehenago izandako ekimenek jarraipena izateko eta ekimen horiek sistematizatzeko borondatea.

Giza Eskubideetako hezkuntzarako politikak ez ziren sartu organismo ofizialen agendan (NBE, Europako Kontseilua...) 90eko urteetan nahiko aurrera arte. Ez dira izan nazioarteko organismoak bakarrik giza eskubideetako eta bake-kulturako hezkuntzarako politika integral, iraunkor eta sistematikoa egiteko erabakitasunik eta buruargitasunik eduki ez dutenak, bidezkoa da nabarmentzea.

Euskadi ere ez da izan biktimei aitorpena egiteko eta ordaina emateko politika zintzoa egiteko orduan salbuespena.

Zalantzarik gabe, hutsune hori garbien eta nabarmenen salatu zutenak Eusko Legebiltzarraren 2003ko ekainaren 25eko Erabakiak izan ziren. Erabaki horiek terrorismoaren biktimen inguruko berariazko lan-programa bat berretsi zuten (hezkuntzaren eremuan ere bai), eta talde horri kaltea ordaintzeko, errekonozimendua agertzeko eta justizia egiteko hainbat neurri buruzko ibilbide-orri bat –oraindik indarrean dagoena– ezarri zuten. Handik aurrera, lanak aurrera egin du, eta denon artean –governuek, oposizioak, alderdi politikoek eta gizartearen zati batek– denbora luzeegian onartu dugun hutsune hori garbi ikusteko aukera eman du.

Bakearen eta giza eskubideen aldeko Hezkuntzako Euskal Planak, lehenik eta behin, Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaren Batzordeak sortutako Biktimen Ponentziak bultzatuta Eusko Legebiltzarrak 2003an eta 2005ean hartutako erabakien ondoriozko konpromisoak betetzen ditu. Zehazki, 2005eko otsailaren 17ko eta 18ko Osoko Bilkuran hartutako erabakien 3.c idatz-zatiak honako hau eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari:

“Legealdi hau amaitu baino lehen bakean eta balio demokratikoetan oinarritutako hezkuntza xede izango duen sail arteko baterako lan bat aurkeztea”.



Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzako Euskal Planean adierazitako konpromisoa beteko litzateke horrela, prestazio pertsonalei eta onespren publikoari buruzko biktimen politikarekin batera, terrorismoaren errealitate horri arreta berezia eskaintzen dion hezkuntza-arloko esku hartzea artikulatuko bailuke.

1997. urtean UNESCOrekin elkarlanean hasi ginen, eta Parisen Elkar Ulertzerako Memorandum bat sinatu genuen, Bakearen Kultura-arloko proiektuak garatzeko. 1998an, erakundeek, Euskadin Bakean oinarritutako hezkuntzaren alorrean diharduten gizarte-erakundeekin batera, lehen diagnostikoa landu zuten: Euskal Herrian Bakean oinarritutako Hezkuntza eskaintzea. "Euskal Herrian bakeari begira hezteak. Euskadin Bakean oinarritutako hezkuntza indartzeko eta garatzeko oinarri eta proposamenak.

2000. urtean, Bizikidetasunaren eta Bakearen aldeko Hezkuntza Programa onartu zuen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, honako uste honetatik abiatuta: hezkuntza-sistemak pertsonak prestatu behar ditu demokrazian elkarrekin bizitzeko printzipioaren arabera, eta horrek esan nahi du hezkuntza zuzenean giza eskubideetatik, justiziatik eta arrazako, generoko edo erlijio diskriminazioaren aurkako borrokatik abiatu behar dela. Bestea onartzearen, ahulenekiko elkartasunaren eta gure ekintzen erantzukizunaren aldeko hezkuntza sustatu behar da. Ildo beretik doazen Hezkuntza Berritzatzeko Programak (2003-2006), halaber, bizikidetzan eta bakean oinarritutako hezkuntzari ematen diote lehentasuna, eskolari buruzko hausnarketa egiteko prozesuari hasiera emateko, eta eskola herritartasuna eraikitze eta desberdintasun pertsonalak eta kulturalak errespetatzeko tokia izan dadin.

Aldi berean, Kultura Sailaren Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzak sustatutako Gazte Planean zeharkako helburu bat biltzen ari da, batetik, balioetan oinarritutako hezkuntzaren bitartez indarkeriazko portaeren inguruan kontzientziazteko eta aurrea hartzeko, eta, bestetik, elkarrizketan eta parte-hartzean trebatzeko, gatazkak konpondu eta bizikidetzaren erraztearen.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta Kultura Sailak elkarlanean jardun dute, eta horrek egoera-mapa egiteko talde tekniko eta adituak eratzea ahalbidetu zuen 90eko hamarkadan. Mapa horretan, Bizikidetzaren eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren inguruko errealitatea, premiak eta proposamenak deskribatzen dira, hezkuntza formalari eta ez-formalari dagokienez. Izan ere, Euskadik arlo horretan duen egoeraren diagnostiko globala da. 2004an eta 2005ean argitaratu zen, plangintza estrategiko sendoa eta iraunkorra garatzeko helburuarekin.

Sortu zenez geroztik, Giza Eskubideen Zuzendaritzak hainbat programa garatu ditu Euskadin giza eskubideen kultura bultzatzeko eta hedatzeko, eta bakearen, bizikidetzaren eta balio demokratikoen aldeko politika multzo hori funtzionalki artikulatzen da Zuzendaritza horren sustapen eta hedapen sistematikoko jardurekin.

Horrela, beraz, bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzako Euskal Planaren eta haren birformulazioaren bidez, aurrekari horiek lotzea eta gobernu-ekintza hori sistematiko eta iraunkor bihurtzeko jauzi kualitatiboa egitea da asmoa.

Lehendakariak, 2005eko ekainaren 22an, inbestidura-saioan egindako hitzaldian, bere konpromisoa iragarri zuen, alegia, «bakearen eta adiskidetzaren aldeko Plan integrala egin eta onartuko zuela, plan



horretan, Jaurlaritzak giza eskubideen arloan bete beharko dituen zeregin guztiak aintzat hartuta eta jasota».

Konpromiso hura betetzearren egindako lehenengo urratsa Jaurlaritzaren Kontseiluak 2006ko maiatzaren 2an onartutako Bake eta Bizikidetzeta Plana da. Plan hori bost jardun-ardatzek eta egin beharreko azken bide batek egituratzen dute.

Egin beharreko azken bide horrek "Bakearen eta Bizikidetzaren aldeko Hezkuntza. Adiskidetzeta"ri egiten dio erreferentzia, eta hainbat konpromiso biltzen ditu. Horietatik lehenengoa Euskal Plan bat onartzea da.

Zirriborro hori Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordearen Biktimen Ponentziari aurkeztu zitzaion 2007ko ekainaren 27an, eta ekarpenak egiteko beste epe bat zabaldu zen Legebiltzarreko taldeentzat zein beste erakunde-eremu batzuentzat eta gizarte zibilarentzat. Epe hori irailaren amaieran amaitu zen ofizialki, eta erantsi beharrekoak erantsi eta gero, Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzako 2008-2011 Euskal Plana izan zen emaitza.

Eusko Legebiltzarraren azken erabakien ondorioz berridatzirik datorkigun planak bere gain hartzen zituen, oinarriko lehentasun gisa, orokorrean terrorismoaren biktimen aurka egiten diren giza eskubideen urratzei dagokienez gizartearen sentsibilitatea handitzea helburutzat duten hezkuntzaren arloko esku-hartze guztiak, eta bereziki, belaualdi berrien sentsibilitatea handitu nahi dutenak. Horrela, prebentzio gisa, gure gazteei biolentzia errotik ukatu eta deslegitimatzen laguntzeko.

- Nazioarteko organismoek egindako gomendioak kontuan hartzea eta Estatuko egoerarekiko sintonia

#### Nazioartean

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala (1948) garrantzi handiko erreferentzia historikoa izan zen; izan ere, lehen aldia izan zen instantzia unibertsal batek denei errespetatu behar zaizkien eskubideak aldarrikatu zituena, eskubideetarako arrazoi bakarra gizakiak izatea izanik. Aldarrikapen horren ondoren, tresna zehatzagoak sortu ziren, hala nola 1966ko Nazioarteko Itunak. Itun horiek, eskubide zibil eta politikoez gain, ekonomikoak, kulturalak eta sozialak ere bildu zituzten. Berariazko hainbat Hitzarmen agertu dira aldi berean (genozidioari, arraza-diskriminazioari eta emakumeen aurkako diskriminazioari, torturari, haurren eskubideei, sexu-eskubideei eta abarri buruzkoak). Horri esker, batetik, giza eskubideen babesaren eremu substantiboa zabaldu da, eta, bestetik, eskubide horiek betetzea bermatzeko eta betetzera behartzeko mekanismoak hobetu eta zehaztu dira.

Baina eskubideak aldarrikatzeari eta eskubide horiek egiaz ezartzeko eta bermatzeko borrokari dagokionez, orain dela gutxi arte ez gara jabetu beharrezkoa dela giza eskubideen aldeko hezkuntzari buruzko lan sistematiko, koordinatu eta iraunkorra egitea. Gerra hotzaren garaiko blokeen arteko aurkaritza ideologikoa gainditzeak ekarri zuen, segur aski, aurreko mendearen 90eko hamarkadan, giza eskubideen kultura batera bultzatzeko jokaleku egokia, betiere giza eskubideak eskakizun zatiezintzat, elkarren mendekotzat eta unibertsaltzat hartuta.



Nazio Batuek bultzatutako eta Vienan 1993an egindako Giza Eskubideei buruzko Munduko Konferentzia hartu behar da inflexio-puntutzat. Konferentzia horren azken deklarazioan eta ekintza-programan zehatz-mehatz bildu zen giza eskubideei buruzko hezkuntza, trebakuntza eta informazio publikoa ezinbestekoak direla komunitateen artean harreman egonkor eta harmoniatsuak ezarri eta sustatzeko, baita elkar ulertzea, tolerantzia eta bakea bultzatzeko ere. Horretaz gain, Konferentziak esanbidez eskatu zien Estatu eta erakundeei irakaskuntza akademikoa eta ez-akademikoa ematen duten erakunde guztien ikasketa-programetan honako hauek biltzeko: giza eskubideak, zuzenbide humanitarioa, demokrazia eta legearen agintea.

Vienako Konferentziaren ondorioz, NBEren Batzar Nagusiak, 1994ko abenduaren 23ko 49/184 Ebazpenean, Giza Eskubideen arloko hezkuntzarako Nazio Batuen Hamarkada izendatu zuen 1995-2004 aldia. Esparru horretan jardun-programa orokorra ezarri zen. Horren ardatz nagusia: Estatuak edo eskualde-erakundeek beren ekintza-plana aurkeztu beharra. Hamarkadan honako hau zen helburua: jardun koordinatu eta homogeneoetan oinarritutako munduko sare-egitura diseinatzea, hizkuntza, tresna eta xede berekin jarduteko. Gainera, egitura hori plangintza estrategiko baten bitartez garatu beharra zegoen, eta plangintza horren emaitzak ebaluatu behar ziren, giza eskubideen kultura hedatzearen aldeko ahaleginak berriz ere bideratzeko eta hobetzeko. Hamarkadaren jardun-programa orokorrak eta Ekintza Plan Nazionalen egiturak honako behar hau zuten abiapuntu: munduko eta tokiko premien diagnostikoa eta ebaluazioa ezartzea, ondoren giza eskubideei buruzko trebakuntzarako, sustapenerako eta hedapenerako programa zehatzak diseinatzeko. Zehazkiago, koordinazio-zentroak eta baliabide-zentroak ezarri beharra adierazten zuen. Eta, azkenik, programak ebaluatzeko irizpideak ezartzen zituen.

Giza eskubideen arloko hezkuntzarako Nazio Batuen Hamarkadarekin hasitako lan eskerga horrek ez zuen denbora-mugarik ezarri nahi. Aitzitik, Nazioarteko Komunitatea mugiarazi nahi zuen, oinarri sendoak ezartzeko eta oinarri horien gainean etengabe eta iraunkortasunez aurrera egiteko. Horregatik, Hamarkada amaiztean eta programaren emaitzak ebaluatu ondoren, une honetan indarrean dagoen jardun-programa jarri zen abian. 2004ko abenduaren 10eko 59/113 Ebazpenean, NBEren Batzar Nagusiak Giza Eskubideetan oinarrituriko Hezkuntzarako Mundu Programa aldarrikatu zuen. Programa 2005eko urtarrilaren 1ean gauzatzen hasi zen, eta ondorengo ondoko zenbait etapatan egituratu da, giza eskubideen arloko hezkuntza-programak sektore guztietan gauza daitezen sustatzeko.

Modu paraleloan eta osagarrian, Nazio Batuek Bakearen aldeko eta munduko haurren aurkako indarkeriarik gabeko Nazioarteko Hamarkada (2001-2010) bultzatu dute. Era unibertsalean adin-tarte guztietara zabaltzen bada ere, garrantzi handiagoa ematen die bakearen aldeko hezkuntzari eta haurren sektoreari.

Adierazitako korrante unibertsalak, gainera, oihartzun berezia du Europako eskualde-eremuan. Eredu horretan, herritartasunaren, balio demokratikoen eta giza eskubideen arloan hezkuntza-alderdiak indartzeko kontzientzia bereziki pizten ari da. 90eko hamarkadatik aurrera, Europako Kontseiluak bereziki areagotu zuen jarduera, Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzarako 2000ko Gazte Programaren bitartez. Horren ondoren, beste ekimen askoren artean, 2005. urtea Hezkuntza bidezko Herritartasunaren Europako Urte deklaratu da. Giza Eskubideen arloko hezkuntzarako Nazio Batuen Hamarkadaren kasuan bezala, urte horren bidez ez zen etenaldirik egin nahi esku-hartzean. Aitzitik, herritartasunaren aldeko hezkuntza eta giza eskubideen aldeko hezkuntza hezkuntza-politiken funtsezko helburu bihurtzeko lan



*jakin bat (handik aurrera irauteko pentsatua) egiten hastea zen asmoa. Halaber, aipatu beharra dago Ministroen Kontseiluak herritartasun demokratikorako hezkuntzari buruzko 12. Gomendioan (2002) eta giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzari buruzko 1346. Gomendioan (1997) adierazitako bultzada politiko orokorra gauzatu dela.*

*Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzako Euskal Planak berariaz, bete-betean eta behin betiko txertatu nahi du Euskadi aurrez deskribatutako nazioarteko korrontean. Premiazkoa da lehenbailehen areagotzea gure gizartean giza eskubideen arloan egiten ari garen lana eta lehenbailehen irekitzea atea nazioarteko erakundeekiko eta gainerako eragileekiko elkarren arteko erantzukizunezko lankidetzari. Izan ere, giza eskubideen kultura unibertsala da, eta nazioartean kokatutako eta koordinatutako ikuspegitik ekin behar zaio gure erkidegoan.*

### Estatuan

*1978ko Espainiako Konstituzioan, Giza Eskubideen arloko nazioarteko tresnetatik bertako ordenamendurako trantsizioa 10. artikuluan txertatuta dago:*

- 1. 1. Pertsonaren duintasuna, datxezkion eskubide bortxaezinak, pertsonalitatearen garapen librea, legearekiko eta gainerakoen eskubideekiko errespetua ordena politikoaren eta bake sozialaren oinarri dira.*
- 2. 2. Konstituzioak onartzen dituen funtsezko eskubideei eta askatasunei buruzko arauak Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren eta gai horiei buruz Espainiak berretsi dituen nazioarteko itunen eta akordioen arabera interpretatuko dira.*

*Espainiako Konstituzioak eta Gernikako Autonomia Estatuak, konstituzionaltasun-bloke gisa, giza eskubideen ondare unibertsalaren lehentasun eztabaidaezinean oinarritzen dituzte beren aginduak. Hortik ondorioztatzen denez (tazituki bada ere), ahalegin handiagoa egin behar da hezkuntza-arloko esku-hartzea bakearen eta giza eskubideen kulturaren arlora iristeko.*

*Bakearen Hezkuntza eta Kultura Sustatzeko azaroaren 30eko 27/2005 Legearen arrazoien azalpenak azpimarratzen du, eta ongi azpimarratu ere, XX. mendearen ezaugarri nagusia biolentziaren kulturaren nagusitasun onartezina izan dela. Kultura horrek agerian utzi ditu zazpi ziurtasun-gabezia larri. Gabezia horiek sarritan eragiten dute frustrazioa, eta ondorioz, biolentzia hainbat mailatan. Zazpi gabezia horiek Nazio Batuen Garapenerako Programak (UNDP) jarri zituen agerian 1998. urtean. Gehienbat ekonomia-eta finantza-gabeziak dira, baita errenten, kulturaren, osasunaren, gabezia pertsonalen, ingurumenaren, politikaren eta komunitatearen alorrekoak ere. Ziurtasun-gabezia horiek toki-eremuan zein eskualdekoan, baita mundu-eremuan dauden hainbat bidegabekeriaren oinarrian daude.*

*Nazio Batuek aldarrikatutako Bakearen Kulturarako Nazioarteko Hamarkadaren (20012010) esparruan, hezkuntzak gizarte baten bilakaeraren motor gisa duen ezinbesteko zeregina aintzat hartuta, lege horrek, XX. mendea definitu duen indarkeriaren kultura bakearen kulturarekin ordeztu nahi du, hori izan dadin mende berriaren ezaugarri nagusia.*

*Bakea osatzen duten balio, jokabide, jarrera, praktika, sentimendu eta sinesmen guztiek osatzen dute bakearen kultura.*





*Bakearen kultura hori ezartzeko, bakean eta giza eskubideetan oinarritutako, eta indarkeriaren aurkako hezkuntza bultzatu behar da, bakearen aldeko ikerketa bultzatuz, tolerantziarik eza ezabatuz, eta elkarriketa eta indarkeriarik eza sutatuz, gatazkak kudeatzeko eta eraldatzeko hedatu beharreko praktika gisa.*

*Lege horrek –Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1999an onaturiko Bakearen Kulturari buruzko Ekintza Planaren a.2 puntua aintzat hartuta- hezkuntzaren eta ikerketaren esparruari zuzenduriko hainbat neurri ezartzen ditu, Espainiako gizartearen bakearen eta indarkeriarik ezaren kultura ezartzeko helburuarekin.*

*Bere artikuluetan, Espainiako Gobernuak helburu hori zer modutan lortuko duen azaltzen da:*

1. 1. Espainiak Nazio Batuen Gutunaren arabera eta sinatu dituen gainerako nazioarteko tresnen bidez konponduko ditu bere nazioarteko gatazkak, Nazioarteko Bake eta Segurtasuna, Lankidetzeta eta Giza Eskubideak indartzen lagunduz.
2. 2. Gobernuak bakea sustatuko du elkartasun, kultura, ikerketa, hezkuntza, lankidetzeta eta informazioko ekimenen bitartez.
3. 3. Helburu horiek lortzeko, Gobernuak lankidetzeta-mekanismoak ezarriko ditu Autonomia Erkidego, Tokiko Erakunde, eta Estatuaren bestelako erakundeekin. Era berean, eta helburu berarekin, gainerako nazioarteko erakunde, eta bakearen esparruko erakunde eta GKEe nagusiekin lankidetzeta-hitzarmenak ezarriko ditu.

*Bakearen kulturaren arloan adierazitako helburuak gauzatzeko, Espainiako Gobernuak honako konpromiso hauek hartu ditu:*

1. 1. Hezkuntza-sistemaren maila guztietan irakasgaiak bakearen kulturaren balioen arabera irakats daitezzen sustatzea, eta bakearen eta balio demokratikoen aldeko hezkuntzarekin zerikusia duten gaiak berariaz jorratuko dituzten irakasgaiak sortzea.
2. 2. Bakearen ikuspegitik indarkeriarik ezaren, tolerantziaren, demokraziaren, elkartasunaren eta justiziaren balioak testu-liburuaren, material didaktikoen eta hezkuntzako materialen, eta ikasleei zuzendutako ikus-entzunezko programen edukietan txerta daitezzen bultzatzea.
3. 3. Bakerako hezkuntzari buruzko ekimenak hezkuntza-programen curriculum-eduki gisa sar daitezzen sustatzea, bai tokian-tokian bai nazioarteko mailan..
4. 4. Hezkuntza-sistemaren barruan ematen den irakaskuntza bizitza osoan jaso beharreko bakearen aldeko hezkuntzaren sustapenarekin osatzea eta, horretarako, helduak adierazitako balioen esparruan hezteak.
5. 5. Nazio Batuen Erakundearekin elkarlanean aritzea Unibertsitate Institutu Espezializatuak sustatzeko.
6. 6. Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa eta Giza Eskubideei buruzko legeria ezagutzera eman dadin eta irakats dadin bultzatzea.
7. 7. Gizon eta emakumeen prestakuntza espezializatu bultzatzea gatazkak konpontzeko tekniken, negoziazioaren eta bitartekotzaren arloan.
8. 8. Gatazkan dauden eremuetan bakea eraikitzeko lanak sustatzea, langile espezializatuaren parte-hartzearekin.
9. 9. Gobernuak gizarte zibilararekin eta Bakearen aldeko mugimenduarekin loturiko eta elkarturiko gizartearekin aldizka kontsultatzeko mekanismoak sortuko ditu Lege horretan bildutako xedapenak behar bezala bete daitezzen.

*Era berean, Gobernuak laguntzak sustatuko ditu bakearen arloan azterlanak eta ikerketak egin daitezzen, eta bakearen aldeko gizarte-ekimenen eta komunikabideen ekimenen onespena bultzatuko du.*

*Giza Eskubideen eremuan egindako ibilbidea Estatuko Administrazioaren hainbat mailalara zabaltzen da - bai Atzerri Arazoetako Ministeriora, baita Hezkuntza eta Zientzia Ministeriora ere, eskola-eremuan-,*



*Eskola Bizikidetasunerako Estatu Behatokia sustatuz eta Bizikidetza Plana eta curriculum-egitasmoak garatuz.*

*Hainbat Autonomia Erkidegotan (Katalunian, Andaluzian, Madrilen, Galizian eta abar), Giza Eskubideen arloan egindako ibilbidea luzea da, bai legeei dagokionez (bakea sustatzeko Kataluniako uztailaren 4ko 21/2003 Legea), bai antolakuntzari (2002ko urriaren 5eko Bakearen Kulturaren aldeko Andaluziako Hezkuntza Plana), eta elkarteei dagokienez ere. Izan ere, erakunde eta ekimen asko daude Estatuko lurralde osoan banatuta.*

- Gobernuaren beraren ekintza osoa sailen artekoa eta erakundeen artekoa izatea.

#### Plan-eredua

*Giza eskubideen eta bakearen aldeko kultura eraginkortasunez bultzatzeko, behar-beharrezkoa da koordinazio-egitura eraginkorra, sendoa eta iraunkorra sortu beharra azpimarratzea, gure gizartean gaur egun eskuragarri dauden baliabideen eta politiken diagnostikoa aintzat hartuta. Giza eskubideen eta bakearen aldeko hezkuntzaren arloko eragileen arteko harreman- eta koordinazio-eredurik ezarri gabe, ezinezkoa izango da aurrera egitea balio horiek barnerratzeko eta haien kontrabaliok deslegitimatzeko ahaleginean.*

*Planaren funtsezko oinarri estrategiko-operatibo bat honako hau da: lortu nahi diren balio-edukiak eta eduki horiek eragiten dituzten bide instrumentalak ez dira nahastu behar. Giza eskubideen eta bakearen kulturaren hezkuntza-alderdia bultzatzeko, erakunde-arkitektura egokia bermatu behar da, gizarte-pedagogiako potentzialak errazteko eta potentzial horiekin bat egiteko. Eta, horretarako, esku hartzeko egitura egokia diseinatu behar da, erakunde-mezuak eta gizarte-mezuak maiztasun-maila berean jartzeko. Eskolak mezu kontraesankorrak jaurtitzen baditu gertuko gizarte-ingurunera, administrazio bakoitzaren politika sektorialek estrategia eta mezu bereziak badituzte, mezuak eta gizarte-praxia bat ez badatoz, eta hezkuntza-estrategia globalean nolabaiteko homogeneotasunik eta korrelaziorik ez badago, orduan ezinezkoa izango da giza eskubideak, demokrazia eta bakea errespetatzen dituzten herritarren portaera-ereduak argi eta garbi ikustea.*

*Gizarte-pedagogiaren arloko esku-hartze serio batek ezin du alde batera utzi balioak eta kontrabaliok aldatzeko gizarte-prozesuen konplexutasuna.*

*Indarkeria deslegitimatuta nahi badugu, giza eskubideen urratzea deslegitimatuta nahi badugu, edo, positiboan esanez: herritarren kultura demokratikoa indartu nahi badugu, kultura demokratiko, parte harkor, solidario, bidezko, berdinzale, pertsonen eta haien eskubideen duintasunaren errespetuzkoa...ez da nahikoa informazioa ematea. Pedagogia soziala ez da informazioa: hori baino konplexuagoa da. Bakean eta Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzarako Euskal Planaren helburua heztea izan da, epe ertain eta luzerako jokabide-aldaketarako eta ekintzarako heztea. Horrek eskatzen duen politika-diseinua nahitaez da, gobernu-eginkizun hutsaz harago, sinergia- eta aliantza-eragilea erakunde eta gizarte maila guztietan.*




*Gainera, politikaren eta erakundeen jardunaren eta gizarte-ekimenaren arteko beharrezko aliantza eta osagarritasuna lagungarria da botere-egituren autoritarismo-arriskuak saihesteko, oinarri demokratikorik gabeko gizarte-ingeniaritzako makrooperazioak abiarazteko aukerarik eman gabe. Oinarrizko gizarte-adostasunak gizarte zibilak bultzatuta kudeatu eta aberastu behar dira, gizarte zibil horrek bere jarduna politika publikoetatik bideratu eta bermatu ahal izan dezan. Eta hori, betiere, erantzukizun publikoaren printzipio nagusia alde batera utzi gabe. Printzipio horren arabera, erakundeen gidaritzak ezinbestekoa eta utziezina da, baina gizarte-indarrak metatuz eta errespetuarekin lankidetzan jardunez gauzatu behar da.*

*Horregatik guztiagatik, planaren estrategia operatiboak hiru mailako harreman-eredua behar du: sail artekoa (Eusko Jaurlaritzan), erakunde artekoa (diputazioak, udalak, giza eskubideetako erakunde ofizialak eta/edo nazionalak...) eta gizartearen baitakoa.*

*Hortaz, plan-eredua ezin da izan sail artekoa bakarrik. Eusko Jaurlaritzaren barruan koordinazioa funtsezkoa da, eta, gainera, dagoeneko abian jarritako lan-tradizioaren lekukoa hartzen du Planean. Horrez gain, Planak Administrazioaren gainerako mailekiko ikuspegi estrategiko komuna ahalbidetu behar du (erakundeen arteko koordinazioa: Aldundiak eta Udalak). Planak erakunde arteko plano batean garatu behar du bere ekintza, giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzaren arloko eragile ofizial guztiak inplikatur (Eusko Legebiltzarraren Giza Eskubideen Batzordea, arartekoa, Emakunde...).*

*Plana abian jartzeko, Giza Eskubideetan eta Bakean Hezteko Sail arteko Batzordea sortu zen (2006ko urriaren 17ko Jaurlaritzaren Kontseiluaren Erabakia). Batzorde horri plana egiteko eta abiarazteko mandatua eman zitzaion.*



*Eusko Jaurlaritzaren Sailak zuzenean koordinatzen dituen Sailarteko Batzorde horren ezkerrean, komunikabideak eta EAeko erakunde-sarea (Udalak, Aldundiak, Eusko Legebiltzarraren Giza Eskubideen Batzordea, Giza Eskubideen Erakunde Ofizialak -arartekoa edo Emakunde, esaterako- eta EITB) kokatzen dira. Eskuinaldean, berriz, elkartekiko (Elkarteen Foroa), eragile ekonomikoekiko, elizekiko, gazte-elkartekiko (Gazteriaren Euskal Kontseilua), eta Giza Eskubideen institutuekiko eta unibertsitateekiko harremanetarako foro jakin batzuk ipini dira.*

*Sailarteko Batzordea, halaber, nazioarteko erakundeekiko (NBERen Giza Eskubideen Goi Komisarioa, UNESCO eta Europako Kontseilua) zuzeneko harremanetarako organoa da. Erakunde horiei ere aurkezten zaizkie ekarpenak jasotzeko dokumentuak.*

*Giza Eskubideetan eta Bakean Hezteko Sailarteko Batzordeak maila guztiak koordinatzen egin duen lanaren oinarria, behin plana onartutakoan, beste bat da: Giza Eskubideetan eta Bakean Hezteko Aholku Batzordea. Batzorde horren helburuak dira:*



- *Planaren printzipio arautzaile nagusietako bati, Gizartearen parte-hartzeari, alegia, edukia ematea.*
  - *Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzaren arloan inplikaturako gizarte-erakundeek parte hartzeko bide bat ezartzea.*
  - *Arlo horretan erakundeen artean koordinatzeko bide bat ezartzea.*
  - *Planean esanbidez aurreikusitako osagarriak izango diren ekintzak bultzatzea eta proposatzea.*
  - *Plana ebaluatzeko tresna eta organo osagarria izatea.*
- **Gizarteak parte hartzeko aukera ematea, gizarte-erakundeen eta herri-administrazioen arteko elkarrizketa bizia eta erraza izan dadin**

*Gobernuak, eta erakundeak, oro har, ez dira lehen interbentzioko agenteak. Ez dute ahalmenik planaren helburuak bere osotasunean operatibo bihurtzeko, eragile sozialen bitartez eta haiekin elkar hartuta ez bada, ez eta gizarte zibilaren indarrak aktibatzeko ere. Gobernuaren ekinbidea, beraz, azpiegitura sortzea, baliabideak antolatzea eta ekimenetan aitzindari izatea da, baina gizarte eragileekiko ekintza-batasunarekiko arretaz, koordinazioz eta errespetuz.*

*Baina ekintza hori ez da horrekin amaitu behar. Gobernu-eragileek eta erakunde-eragileek bakarrik ezin dute inoiz behar bezala garatu bakearen eta giza eskubideen kulturaren sustapen eta zabalkunde sistematikoa. Eragile horiek gizarte-ekintza aktiboki gidatu eta sustatuko duten politikak lantzearen lehen erantzuleak dira eta, horren ondorioz, gizarte-ekintza hori modu esponontzialean areagotzeko asmoa dute. Hori dela-eta, planak hasiera-hasieratik lortu behar du haien parte hartzea, baina, aldi berean, plangintzan sartu behar ditu, erakunde-sare osoa ez ezik, baita GKEen eta gizarte zibilaren jardura eta input-a ere, edo xedea behintzat eduki behar du.*

*Jardun-programa guztien oinarrian honako jardun-eredu hau dago: udal-esparruan harremanetarako mikroklimak sortzea, hezkuntza-sare formalaren jardunak planifika daitezzen eta udal-esparruko esku-hartzeekiko koherenteak izan daitezzen. Planak hezkuntza formala ez-formalarekin eta informalekin osatu nahi du, hezkuntza-eragile oro eta gizarte zibilaren indarrak giza eskubideen eta bakearen aldeko hezkuntzaren esparru zehatzean dinamizatuz. Planak, berariaz, hezkuntza formala eta ez-formala lotzeko eta elkarren artean indartzeko eredia era antolatuan sendotzea bilatzen du. Gainera, horrek oihartzuna eta mezu indargarria aurkitu behar du komunikabideetan, bereziki, komunikabide publikoek hezkuntzan eta gizarte-pedagogian duten ahalmena ahalik eta ondoen aprobetxatzearen bidez.*

Osagai positibo horiekin batera, kontuan hartu behar dira, orobat, indarrean egongo den epe horretan ebaluazioa egiteko eta ondoren doiketak eta zuzenketak egiteko planak berak ezarritako mekanismoak.

Zehazki esanez, plana bera berrikuntza izan zen, eta plana abiarazteko orduan inguruabar bereziak izan ziren. Hori hala izan zela aitortuta, honako hau proposatu zen lehen-lehenik eta salbuespen gisa: **«plana behin betiko onartu eta urtebete ondoren lehenbiziko eraginaren ebaluazioa egitea, sektore guztietan ekintzak doitzeko, zuzentzeko, osatzeko edo zabaltzeko izan zitezkeen beharrei jarritz arreta.»** Lehenbiziko ebaluazio horren ondoriozko



hobekuntza-proposamenak ezartzeko prozesua eten egin zen aldi batez, gobernu-aldaketa ekarri zuen hauteskunde-prozesua hastearekin batera.

Bigarrenik, plan horretan bertan adierazi zen: «**Planaren ebaluazio osoa bi urtez behin egingo da**, plana indarrean sartzan den unetik hasita, eta honako zati hauek bereiziko dira:

- *Ekintzen eta programa sektorialen eta estrategikoen betetzeari lotutako alderdia.*
- *Egitura organikoaren funtzionamenduari lotutako alderdia (Sailarteko Batzordea eta Aholku Batzordea).*
- *Helburuen, printzipio gidarien eta ildo estrategikoen egokitasunari lotutako alderdia (Zati Substantiboa).»*

Planak behin eta berriro agertzen du ebaluatzeko eta errealitateari egokitzeko etengabeko prozesu baten inguruko kezka, helburuak ahalik eta gehien betez eta ahalik eta eraginkortasunik handienarekin garatua izateko. Hori bera nahikoa da agiri honen beharra eta komenigarritasuna justifikatzeko; izan ere, planaren lehenbiziko urtearen ebaluazioan egindako hobekuntza-proposamenak onartu eta aplikatzea, eta bi urtez behingo aginduzko ebaluazioaren irizpideak prestatu eta aurreratzea ditu helburu, besteak beste.

Baina, horrez gain, ezin ahaztu Eusko Jaurlaritzako taldea aldatu egin dela 2009ko martxoan egindako hauteskunderen ondorioz. Euskal Autonomia Erkidegoko gobernuaren zuzendaritza eskuratzeko behar den konfiantza irabazi zuen herritarrengandik programa-konpromisoei esker, eta, hori dela eta, are eta arrazoi handiagoz berrikusi eta birformulatu behar da plana, gobernu berriaren ikuskera eta hautabideen arabera egokitzeko beharrezana agerikoa izanik, eta gobernu berriaren hautabide horien artean izanik legebiltzarrean planaren aldeko bermeak eta adostasunak gehitzea.

Beste alde batetik, ezin ahaztu, gainera, gobernuaren aldaketa ez dela izan plana garatuko den esparruan gertatutako aldaketa edo berritasun soziopolitiko garrantzitsu bakarra; aldaketa horri ez ezik, beste batzuei ere egokitu beharko zaie, ezinbestean.

Gogoeta horiek guztiak dira, denak batera hartuta, elkarrekiko eraginak ere aintzat hartuta, testu hau egiteko arrazoia. Testu honetan, indarrean dagoen *Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzako Euskal Plana (2008-2011)* 2010-2011 epera egokitzeko ahalegina dago jasota.



## 2.2 Testuinguru sozial, politiko eta instituzionalaren berrikuntzak

Planak lau urteko indarraldia izango du, eta horrek eskatzen du lantzeko orduko inguruabarrak eta ondoren garatzekoak aztertzea, nola ezinbestean aldatzen edo berritzen diren (hein batean bederen) aztertzea, alegia.

Gure kasuan, sei mugarri ikusiko ditugu, garrantzi berezikoak:

- Eusko Jaurlaritzak, 2008ko ekainean, lehen aipatu dugun bezala **Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko 4/2008 Legea** onartu izanak, garapena eta betearazpena behar ditu bere edukiaren zenbait alderditan; horretarako, beste ekimen batzuekiko artikulazioa eta bateratzea behar da, plan honekin berarekin, esate baterako, hein batean bederen, errealitate berari eragiten baitio. Gogorarazi behar da, 9.3 artikulua hainbat betebeharrak ezartzen dizkiela euskal botere publikoei, eta, horien artean, honako hauek nabarmendu behar dira:
  - Hezkuntza-sistemaren maila guztietan bakearen eta giza eskubideen aldeko heziketa eta balio demokratikoen sustapena bultzatzea.
  - Hedabide sozialek balio demokratikoekin, giza eskubideekin, bakearekin eta askatasunarekin konpromisoa har dezaten sustatzea.
  - Terrorismoaren deslegitimazio etiko, sozial eta politikorako neurri aktiboak abiaraztea, Zuzenbide Estatu demokratikoaren zilegitasuna gizartean sustatuz eta, gure askatasunen eta bakezko elkarbizitzaren berme gisa, elkarbizitza integraztailerako arauetan antolatuz.
- Lehendakariaren IX. Legegintzaldirako inbestidura-saioa; bertan, **bakearen ezinbesteko eraikuntza** izan zen bere hitzaldiaren zutabe oinarrizkoetako bat, 5. orrialdean azaltzen den eran.
- Eusko Legebiltzarraren 30/2009 legez besteko proposamena, 2009ko urriaren 15ekoa, *Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzako (2008-2011) Euskal Planari* buruzkoa, planaren birformulazioa agintzen baitu helburu oso zehatz gisa.
- **Arartekoak, 2009ko ekainean, Euskadin Terrorismoaren Biktimei Erakundeek emandako Arretari buruzko ezohiko txostena** aurkeztu zuen; bertan, besteak beste, indarkeria terroristari buruz gizariek duen ikuspegiaren gaineko datu oso adierazgarri eta kezkarriak emateaz gainera, biktimen lekukotza hainbat esparru sozialetara eraman behar dela esaten da behin eta berriro, are hezkuntzaren esparrura ere; orobat,



biktinek biktimentzako egiten diren ekimenetan parte hartu behar dutela aipatzen da.

- **“Herriartasunerako Hezkuntza” ikasgaia** ezartzea hezkuntza formalean, eta balio eta jarrera demokratikoetan prestatzeko eta balio horiek ikasteko bitarteko natural eta arrunt gisa baloratzea ikasgai hori. (Martxoaren 30eko 97/2010 Dekretua).
- Azkenik, **Gobernu berri bat eratu izana** 2009ko martxoko hauteskundeen ondoren; gobernu horrek jarduera-printzipioak mahai gainean jartzeko borondatea du, eta, gainera, erantzukizun utziezinezkoa du hori.

Egitate horiekin batera, bada beste bat, orokorragoa baina erabakigarria: **biktimak gizartean ikusgai bihurtzea**, alegia (gure kasuan, terrorismoaren biktimak batez ere). Fenomeno hori, biktimen taldeen eta elkarten lanari eta aldarrikapenari zor zaio, apurka-apurka lortu baitute Espainiako eta Euskal Herriko gizarteak biktinek pairatutako bidegabekeria ulertzea eta gizarteak hori aitortzeko beharra barneratzea.

Eusko Jaurlaritzak 2007., 2008. eta 2009. urteetan biktimen omenez eta haiei ezagutza emateko antolatutako ekitaldiak dira horren froga on bat.

## 2.3 Planaren birformulazioaren orientabide oinarritzakoa

Planaren birformulaziorako kontuan hartu dira:

- **Aurreko gobernuak 2009ko otsailaren 10eko gobernu-kontseiluan onartutako ebaluazioa.** Gauza bakarra dio: planak nolabaiteko abiada eta homogeneotasuna hartu dituela bere jardun-lerro eta –egitismo guztietan. Horrez gain, nabarmena zen lehendik diren koordinazio-organoen garapenean eta finkapenean aurrera egiteko beharrez, sareko esperientziak eta lana trukatzeko modua eman.

Nolanahi ere, sailen arlo batzuetan eta besteetan aurreikusitako jardueretako bakoitzaren analisi xehekatuak, planak berak aurreikusten zuenak, aukera ematen du honako hau baieztatzeko: planak biolentziaren kontra eta biktimekiko elkartasunaren alde agertzen duen erabakitasun irmoa alde batera utzi gabe, **bizikidetasun demokratikoa sustatzearekin lotura duten edukiei heltzeko eta biolentziaren deslegitimazioari heltzeko eginkizunak aplikazio oso urria izan du.** Herrizaingo Sailak terrorismoaren biktimen esparru espezifikoan ematen dituen laguntza-lerroez gain, esku-hartzeak unitate didaktikoen





garapenari baino ez dio ia arreta jartzen. "Bakea eraikitzen duen gizarte bat" eta "Bakerako Urratsak Eginez", proba gisako saioen modura gauzatu ziren 2006-2007 eta 2007-2008 ikasturteetan zehar. Proba gisako saio hori 2006-2007 ikasturteetan aplikatu zen 6 ikastetxetan, eta bigarren hezkuntzako 285 ikaslek parte hartu zuten bertan; 2007-2008 ikasturtean, 4 ikastetxetan aplikatu zen, eta 276 ikaslek parte hartu zuten. Ondoren, plana abiarazitakoan, ez zen berriro garatu.

Indarkeria deslegitimatzeke eta biktimentzako pentsamendu positiboak eta enpatiazkoak eragiteko oinarrizko helburu hau lausoturik eta deseginik geratu da interbentzio-esparru orokor zabal batean.

Berdin gertatzen da Justizia edo Kultura sailek sustatutako laguntzetarako deialdietan, edo prestakuntza eta trebakuntza sozialeko programetan, edo ikerketarako eta eztabaidarako programetan; horietan, bizikidetasun demokratikoaren esparruko interbentzioa eta terrorismoaren deslegitimazioa hutsaren parekoak izan dira.

- **Erakundeek terrorismoaren biktimei emandako arretaren gainean Arartekoak 2009ko ekainean egindako ezohiko txostenaren ekarpena**, familiek gazteei giza eskubideei buruzko balio positiboetan sinestarazteko orduan eta balio negatiboen transmisio-eragile indartsu gisa duten zeregin sozializatailearen garrantzia agerian jartzen baitu zehaztasunez eta kuantitatiboki. Inkesta egin zitzaizen ikasleen % 18k adierazi zuen "ETAk jarduteko arrazoiak" daudela irakatsi zaiela familian.

Halaber, txosten horrek kezka adierazten du funtsezko giza eskubideen aldera errespetu falta dakarten balio eta jarrerak hor dirautela, eta ekintza bortitzak eta terroristak ez arbuiaztera edo justifikaztera ere iristen direla batzuetan. Zifratan adieraztera, ikasleen % 24k dio "*batzuetan ekintza terroristak justifikatuta egon daitezkeela; bestalde, ekintza terroristek ezin dute inoiz ere justifikaziorik izan*" baieztapenaren aurrean, % 19,1ek adierazi du ez dagoela ados; % 18k erantzun du "*gaizki iruditzen zaiola ETAk hiltzea, baina beharrezko ikusten duela kale-borroka*"; azkenik, % 11,5ek dio "*ETAren ekintzak onuragarriak direla Euskadirentzat*".

Horrez gain, biktimak ikasgeletara eramatearen inguruan, aipatu behar da orobat, Arartekoaren txostenean aldeko jarrera ageri dela; ikasle horiekiko interakzioaren balio pedagogiko handia nabarmentzen da:



*"Ahozkotasunaren bidez, biktimek egiaz parte hartzea sustatzen da, eta biktimazio-prozesu dinamikoa ezagutzera ematea. Aldez aurreko prestakuntzarekin eta koordinazioarekin, biktimek ikasleei galderak egin ahal dizkiete, eta haien galderei erantzun, eta, hala, beren protagonismoa ordezkazinezko bihurtzen da".*

Era berean, kontuan hartu behar da Arartekoak bere txostenean egindako gomendioa, 4/2008 Legeak biktimei aitortzen dien parte hartzeko eskubideari buruzkoa.

*"Terrorismoari legitimazioa giza eskubideen sustapenaren bitartez kentzeari dagokionez, bermatu egin behar da terrorismoaren biktimen eskaerak behar bezala ordezkatzeko direla Giza Eskubideetan eta Bakean Hezteko Aholku Batzordearen bitartez, otsailaren 10eko 31/2009 Dekretuak sortu eta arauturikoa hura. Zehazki, eta ebaluazio zientifikoak oinarri hartuta, aintzat hartu beha da biktimek egindako eskaria ikasgeletan lekukotza zuzenekin laguntzeko.*

Azkenik, hedabideei buruz, Arartekoaren txostenak egindako proposamen hauek nabarmendu behar dira:

*"- Trebakuntzaren eta lankidetzarako protokoloen lanketaren bitartez, hedabideek, publikoek batez ere, biktimazio terroristaren kontzientziaziorako balio behar dute, bidegabekoa eta justifikazina, heterogeneoa, konplexua eta dinamikoa den fenomeno bat den heinean. Saihestezina da iritzi kritikoa bultzatuko duen iritzi publikoa, behar bezala informatuta dagoena, eratzeko konpromisoa hartzea.*

*Hedabideek biktimazioa deuseztatzeko prozesuen gaineko informazioaren alde eta biktimen lehengoratzeko sozialaren alde egin behar dute, estigmak saihestuz. Biktimen euren aniztasunaren aberastasuna erakutsi behar da, eta baita gizatalde eta erakunde babesean eraginkorrak direla erakutsi duten gizarte-mekanismoak ere.*

- Gobernu-talde berriak egindako **analisi estrategiko** kualitatiboa, aurreko paragrafoetan aipatutako txosten eta ebaluazioen emaitzaren aurrean. Ondorioa hau da, lehen esan dugunez: biolentziaren deslegitimazioari eta bizikidetasun demokratikoaren defizitari giza eskubideetan eta bakerako hezkuntzan dugun beste defizit baten moduan heltzeak, Euskadik arlo horretan duen problema nagusitzat hartu gabe, eragin txarra izan du helburu hori lortzeko orduan, planak berak adierazi duen borondatea gorabehera.



Terrorismoaren biktimak ez dira bertatik bertara izan hezkuntza formalaren esparruan, nahiz eta eurak balio handiko baliabide pedagogikoa izan hezkuntzarako eta beren biktima izaera aitortzeko, ordaina emateko eta justizia egiteko. Balio hori Euskadiko Eskola Kontseiluak ere berretsi du birformulazioari buruz emandako txostenean.

Hedabide publikoei dagokienez -EITBri buruz ari gara, zehazki-koordinazio-egiturak sendotzeko beharra hautamen da, biolentzia terrorista deslegitimatzeke ildoan sustatutako eta seinalatutako ekintzei etengabe lagundu, ekintza horien bilakaera zaindu eta ebaluatzeke modua eman dezaten, berdin delarik ekintza horiek dagoeneko gauzatzen hasitakoak izan edo birformulazioaren ondoren abiaraztekoak izan.

Ikusirik orain arteko gogoeta horien emaitza eta kontuan hartuz dagoeneko aipatu ditugun egoera-osagai berriak, gobernu berriak egindako birformulazioaren oinarritzko osagaiak definitu dira, testu bategin honetan azaldutako garapenen gida-lerro izango baitira:

1. Planaren herri-dimentsioari eutsi zaio, eta, aldi berean, **Gobernuak** bere eskumeneko eta erantzukizuneko jarduerak garatzeko duen **lehenasunezko konpromisoa** azpimarratzen da.

2008-2011 planean foru-diputazioek eta Eudelek gauzatzeko aurreikusitako jarduerari eutsi zaie, eta, birformulazioaren barruan sartu diren beste guztiak bezala, erantzukizuna duten organismoek zehaztuko dituzten aldaketan pean geratzen dira, plangintza-jarduera orori dagokion ebaluazio-bilakaerak agintzen duenaren arabera. Jarduera horien azalpena eta programa eta ildo estrategikoeikiko lotura hitzez hitz deskribatzen dira, jatorrizko agiriko 9.6 idatz-zatian ageri diren bezala.

2. Hala bada, gobernuak arlo horri ematen dion garrantziarekin eta agiri honetan ezarritako helburuekin bat etorritz, **lehendakariak** planaren kudeaketan eta garapenean izango duen **lidergo** zalantzarik gabea definitzen da.
3. Beste helburu batzuekin artikulatzeko beharra onartuz, **gure gizartean den indarkeria terrorista deslegitimatzeke beharra** lehenesten da; gaur egun, **ETArena da biolentzia hori, ez beste inorena.**
4. Hezkuntza ez formalaren eta informalaren arloetan egin beharreko jarduerak merezi duen garrantzia gutxitu gabe, **hezkuntza formalaren garrantzia** nabarmentzen da.



5. Giza eskubideen defentsari eta haien urraketaren salaketari tinko heltzen dion hezkuntza-sistema baten aldeko apustua eginez, eta salaketa horretan biktimen lekukotza baliabide pedagogiko baliotsua izanik bizikidetasunera zuzendutako ikasketa-prozesuan.
6. Zerikusia duten gizarte-hezkuntzetako eragile guztien koordinazioa beharrezkoa dela berretsiz, arreta berazia jartzen zaio **hedabide publikoen egitekoari**. (EITB).
7. Familiak gai honetan duen zeresan garrantzitsuaz jabeturik, **haren parte hartzea** lortu nahi da, hezkuntza-komunitateko kide direnez gero Irakasleen eta Gurasoen Elkarteen bitartez.
8. **Erakunde demokratikoen defentsa proposatuz —sistema demokratikoaren barruan beste aukera bidezko batzuk zilegi izanda ere, betiere bakez eta demokrazia-bidez defendatzen badira—**, eta, horrekin batera, tolerantziaren eta aniztasun politikoaren balioak sustatzea ardatz, **terrorismoaren biktimek erreferente iraunkor eta balio demokratikoen aldarrikatzaile gisa** duten zentralitatea geureganatuz, balio horiek ezeztatzearen ondorioz eraso baitzituzten.
9. Planak bere baitan dakarren etengabeko ebaluazioaren eta hobekuntzaren xedea aintzat hartuz, alde batetik **planaren alderdi operatiboak arrazionalizatzen dira** alde batetik (ekintza, erantzukizun-eta kudeaketa-organoak), eta, bestetik, azpimarratutako aukera horiei egokitzen zaizkien ekimen berriak eranstean zaizkio.

Irizpide horiek guztiek argitzen eta bideratzen dute planaren 2010-2011 aldirako birformulazioa, planak dituen alderdi positibo guztiak indartu nahi baititu; negatiboak eta defizitarioak zuzendu; baliotsua den hori indartu; gauzatzeko zailtasunak eta oztopoak aurkitzen baditu, lausoa argitu; eta, jakina, beharrezkoa den oro erantsi, hartara, helburuak ahalik eta egokien bete ditzan.

Nolanahi ere, birformulazio horren xede formal esanguratsua hau da: beharrezkoak diren oinarriak ezartzea etengabe ebaluatzen eta doitzen den lehenbiziko planaren esperientziaren ondoren; eta bigarren plan bat behar bezala eta zehaztasunez formulatzea 2012-2015 aldirako, zeina gure artean biolentzia terroristarik izan gabe gara dadin nahi baitugu.



### 3. Azalpen-zatia

*Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzako Euskal Planak (2008-2011)* bere azalpen-zatian jasotzen ditu giza eskubideetan eta giza eskubideetarako hezkuntzaren eta bakearen aldeko hezkuntzaren definizioa eta dimentsioa, plana birformulatzeko abiapuntu bezala erabilitakoarekin bat etorrita. Hala, plan horren zati handi bat bere horretan utzi da testu bategineko 2.1. paragrafoan, eta, horrenbestez, dagoen dagoenean onartzen da. Era berean, testu bategin honetan plan haren beste paragrafo batzuk ere erreproduzitzen dira (printzipio orokorrak, funtsezko printzipioak, antolaketa-printzipioak...). Baina, plan horretan adierazten den bezala, **bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntza ez da era abstraktuan proiektatzen. Aitzitik, gizarte-errealitatearen premiei eta lehentasunei erantzun behar die. Eta, horrela, bizikidetasun demokratikoa eta indarkeria deslegitimatzea lehenesteko eta horietan arreta jartzeko beharra sortzen da.**

Aipatutako estrategia bikoitzaren benetako ezarpenean gertatu da adostasunik eza, birformulazio hau zuzentzen ahalegintzen dena. Plana zelan gauzatu den aztertuta, hau ondorioztatu daiteke: egoki bada ere giza eskubide guztiei heltzea ikuspuntu formal eta pedagogiko batetik, eskola-aldi guztietan, eta esparru ez formal eta informaletan, era berean, ezinbestekoa da, jarduera guztiak zeharka hartuta, bizikidetasun demokratikoa eta indarkeriaren legitimazioa lehenestea eta horietan jartzea arreta, trinkotasun handiagoz edo txikiagoz, jardueraren tipologiaren arabera. Eta hori guztia esku-hartzea al bait eraginkorra izan dadin.

Gobernu honek esku-hartze zabala egin nahi du gai honetan, eta horregatik, hain zuzen, ez da bakarrik mugatuko plan birformulatu honetan azaldutakora; izan ere, Eusko Jaurlaritzako sailei dagozkien eskumen-arloetan ere planifikatzen dira zenbait esparru, hala nola: kulturen arteko hezkuntza, ingurumen-hezkuntza, berdintasunaren aldeko hezkuntza... eta ekarpen esanguratsuak egiten dituzten neurrian, agerian geldituko da plan honen helburuak lortzen emandako laguntza.

Azalpen-zati honetan beste definizio bat gehiago sartu behar da: **indarkeria deslegitimatzea**. Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntza Elkartearen Foroak iradokitzen eta aholkatzen du zehazki definitzea zer den indarkeria deslegitimatzea, birformulatu honetan termino oinarritzkoa eta garrantzitsua izanik, balitekeelako haren interpretazioak arriskuetatik libre ez egotea. Ildo horretan zenbait eragilek ahalegin handiak egin dituzte termino hori mugatzeko.



Lan konplexua eta zaila da. Espainiako Errege Akademiak honela definitzen du zer den “deslegitimatzea”: “*balioa edo legitimitatea kentzea*”. Esparru honetan lan egiten duten elkarteek azaldutako ideiei jarraiki, seguru aski adostu daiteke, zailtasun handirik gabe adostu ere, **indarkeria edo terrorismoa deslegitimatzeak esan nahi duela horiek helburu politikoekin erabiltzearen bidegabekeria, zilegitasunik eza eta legezkotasunik eza agerian uztea**. Hau da, hori guztia agerian utzi, indarkeriarik ezaren eta sistema demokratikoaren aldeko gizarte-kontzientzia sustatzeko, demokrazia eztabaida- eta negoziazio-esparrutzat joz. Horrela, adostu daiteke indarkeria legitimatzen duela, honakoren bat egiten duenak: **indarkeriaren zilegitasuna edo justizia defendatzen duenak; bere kausaren balioa giza duintasunaren gainean jartzen duenak; helburu bat lortzeko bide guztiak zilegitzat jotzen dituen printzipioa bere egin eta helburua lortzeko denak balio duela uste duenak; edo konponbide-eredu bat proposatu eta bere baldintzak onartu ezean indarkeriaz jotzeko mehatxatzen duenak**. Jarrera-mota horiek indarkeria legitimatzen dute, eta bateraezinak dira demokraziarekin, demokraziaren balioekin eta giza eskubideekin.

Indarkeria deslegitimatzea, berriz, hau da:

- Helburu politikoak lortzeko indarkeria erabiltzearen bidegabekeria, zilegitasunik eza eta legezkotasunik eza salatzea, eta biktimekiko enpatia eta elkartasun aktiboa erakustea.
- Giza duintasunaren balioa beste edozein kausaren edo helbururen aurretik jartzea, eta bizitzeko eskubidearen lehentasuna defendatzea.
- “Edozein gauzak balio du” eta helburu bat lortzeko bide guztiak zilegi direla dioen printzipioa arbuiatzea.
- Eta konponbide- edo bizikidetasun- baldintzak eta ereduak inposatzeko indarkeria edo mehatxua erabiltzearen aurka egitea.

Horrenbestez, indarkeriaren deslegitimazioa ezinbesteko bitarteko bihurtzen da eraginkortasun handiagoz lortzeko bizikidetasun demokratikoa, non giza eskubideen errespeturik gorena nagusi den.

Indarkeria deslegitimatzearen kontzeptua objektibitatez eta doitasunez baliatu behar da, ez dadin erabili interes alderdikoiez edo sektarioez; horrela egitekotan, baliogabetuko bailitzateke kontzeptuaren aplikazioa. Indarkeriarik ezaren kultura tolerantziari eta pluralismoari lotuta dago, eta erakunde demokratikoen errespetuari eta defentsari, eta proiektu, ekimen eta jarrera politikoetan dauden alde zilegien onartzetik haratago doa, 35. orrialdean azaltzen den birformulatzearen helburuan islatzen den bezala.



Aipatzekoa da, azkenik, agiri honen 2.1. atalean deskribatzen den nazioarteko eta arauetako testuingurua dela, hain zuzen, bakearen eta giza eskubideen aldeko kulturari dagokionez, hezkuntza-arloan esku hartzeko ahaleginak bikoizteko mandatuaren oinarria den esparrua. Horrez gain, testu bategin honetako 2.1. atalean garatu diren gizarte-, politika- eta erakunde-testuinguruaren elementu berriak gehitu behar zaizkio.



## 4. Zati substantiboa: printzipioak eta helburuak berrikustea

*Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzako Euskal Planak (2008-2011) ezartzen zuen lehentasunik handiena zen, hain zuzen, giza eskubideen eta bakearen kulturaren inguruan informazioa emateko eta trebatzeko, eta kultura hori sustatzeko eta zabaltzeko lanaren eredu integral eta iraunkorra ezartzea, XXI. mendeko Euskadirako eredu bat, bere berezitasunekin bizikidetasunari eta giza eskubideen errespetuari dagokienez, eta nazioarteko erakundeen gomendioekin bat etorrira (Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoa). Hau da, **integrala**, giza eskubideen kultura zabaltzeko egon daitezkeen hezkuntza-, gizarte- eta erakunde-eragile guztiak tartean sartzeari dagokionez; **iraunkorra**, denboran irauteari dagokionez; eta XXI. mendeko Euskadirentzat, bizikidetasunaren eta giza eskubideen errespetuaren aldetik dituen berezitasunei dagokienez.*

Gure inguruko herrialde guztien interes zilegi hori zehaztu da IX. legegintzaldi honetan, zeharka, xede hauek dituzten politiketan: berdintasuna, genero-indarkeria, giza eskubideen aldeko hezkuntza, bizikidetasuna, adingabekoak defendatzea, etorkinak gizarteratzea, arrazismoaren eta xenofobiaren kontra egitea, droga-mendekotasunak prebenitzea, gatazkak konpontzea. Dagoeneko horiek guztiek erantzun planifikatua dute jaurlaritzako sailtako eskumen-arloetan. Dena den, euskal errealitatearen ezaugarriak direla-eta, beharrezkoa da nazioarteko ikuspegian homologagarria den eredu integral horri arretagune bat gehitzea, **bizikidetasun demokratikoari eta indarkeria deslegitimatzeari adi**.

Horregatik birformulatze honen helburua da, bereziki, albait zehazkien argitzea eta definitzea euskal gizarteak bizi duen arazo espezifikoa konpontzeko egin beharreko esku-hartzea: planteamendu politiko totalitarioetatik datorren terrorismoa, talde jakin batek euskal gizarte osoari, ekintza terroristen bidez, inposatu nahi diona, eta herritarren sektore batek justifikatzen duena edo haren deslegitimazioan parte hartzetik alde egiten duena.





## 4.1 Birformulazioaren helburua

2008-2011 Planaren helburu orokorra zen “*Euskal gizartean Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntza bultzatzea [...], dauden baliabideak optimizatuz eta sektore estrategikoen arteko beharrezko sinergiak sortuz, baita jardun-programa sistematikoa, koordinatua, etengabea eta iraunkorra sortzea ere, giza eskubideen eta bakearen kultura sustatzeko eta hedatzeko, kultura horri buruzko informazioa emateko eta kultura horretan trebatzeko*”. Helburu horri, bada, birformulazioarena gehitu behar zaio:

***Terrorismoaren deslegitimazioa eta bizikidetasun demokratikoa bultzatzea euskal gizartean, herritarren jarrerak alda daitezen ahalbidetuz, tolerantziaren, aniztasun politikoaren eta giza eskubideen kontzientzia eta sustraitzea indartzeko herritarren artean eta erakundeetan. Indarkeria terrorista erabat deslegitimatzeko alde zuzena baldintza beharrezkoa da askatasunean oinarritutako bizikidetasun demokratikoa lortu ahal izateko.***

Bi helburu horiek bateragarriak eta elkarren osagarri dira, eta honako hauek erdietsi nahi dituzte:

- a) Euskal gizarteak Giza Eskubideak hobeto ezagutzea, baita eskubide horiek ingurune hurbilean zer egoeratan dauden jakitea ere, Giza Eskubideak ezagutzea, babestea, gauzatzea eta sustatzea bultzatzeko, eskubide horiek urratzen direnean. Gizartean, bada, eskubide eta askatasunen sortzaile diren balio demokratikoak gailendu behar dira, eta sistema demokratikoak desberdinen arteko bizikidetasun demokratikoa bermatuko du.
- b) Herri-administrazioek Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntza bultzatzeko politika publikoak zuzentzea, eta, aldi berean, bizikidetasun demokratikoarekin eta indarkeria terroristaren deslegitimazioarekin engaiatuta jardutea. Orobat, behar bezala koordinatuta lan egingo dute, eta helburu hori lortzeko nahikoa baliabide bermatuko dituzte.
- c) Gizarte- eta hezkuntza-egitura aktiboa izatea, Giza Eskubideak zabaltzeari eta sustatzeari dagokionez, eta gizartea bizikidetasun demokratikoaren eta indarkeriaren deslegitimazioaren alorretan trebatzea.
- d) Komunikabideak –nagusiki titulartasun publikoa dutenak– bereziki aktiboak izatea giza eskubideen, bakearen,



bizikidetasun demokratikoaren eta indarkeriaren deslegitimazioaren zabalkundearen eta pedagogia aktiboan.

Epe ertainean, zera lortu nahi da: informazioak eta trebakuntzak pixkanaka-pixkanaka jarrera-aldaketa ahalbidetzea biztanleriaren sektore zabaletan. Jarrera-aldaketa horrek kontzientziatzea eta giza eskubideen eta bizikidetasun demokratikoaren kultura herritarrengan eta erakundeetan sustraitzea ekarriko du berekin, eta, batez ere, lehenbailehen, indarkeriaren kulturaren deslegitimazioa —indarkeria terroristarena, bereziki—.

## 4.2 Printzipio gidari nagusiak

200-2011 Planean identifikatutako printzipio gidari nagusiek giza eskubideen esferako hezkuntzarako ekintza-plan nazionalak lantzeko ildo nagusietan bildurikoak dira (Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioa). Lehen maila batean, modu orokorrean aplikatzekoak dira, giza eskubideen aldeko hezkuntzaren alorrean egindako esku-hartze ororen muina biltzen baitute. Testu bategin hau hobeto ulertze aldera, hitzez hitz jaso ditugu. Hona hemen:

a) Giza eskubideen esferako eta eskubide horien aldeko hezkuntza funtsezko giza eskubidea da.

b) Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzak giza eskubide guztien errespetua eta babesa sustatu behar du, **gizarteko kide guztientzako** hezkuntza-jardueren bitartez.

c) Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzak **giza eskubideen elkarren mendekotasuna, zatiezintasuna eta unibertsaltasuna** sustatu behar du, eskubide zibil, kultural, ekonomiko, politiko eta sozialak barne, baita garatzeko eskubidea ere.

d) Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzak emakumearen eskubideak eta **genero-ikuspegia** hartu behar ditu kontuan plan nazionalaren alderdi guztietan, giza eskubideen zati diren aldetik.

e) Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzak bere garrantzia aintzat hartu eta azpimarratu behar du, hain zuzen ere, **demokrazia, garapen iraunkorra, lege-agintea eta bakea sustatzeko, eta ingurumena babesteko** duen garrantzia.

f) Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzak onartu eta azpimarratu behar du **eginkizun berezia bete behar duela eskubide horien urratzeei aurrea hartzeko estrategia gisa**.



g) Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzak arazo larri, egiturazko eta/edo sortu berriei buruzko azterketa sustatu behar du, eskubide horiekin bateragarri diren konponbideak aurkitzeko.

h) Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzak eskubide horiek babesteko tresna eta mekanismoei buruzko jakintza sustatu behar du, baita horiek guztiak munduan, eskualdean, nazioan eta toki-eremuan aplikatzeko beharrezko ahalmena ere.

i) Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzak beharrezko baliabide guztiak jarriko ditu komunitate eta pertsona guztien eskura, funtsezko eskubideen alorrean dituzten premiak zehazteko eta premia horiek bete daitezen zaintzeko.

j) Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzak metodo didaktikoak landu daitezen sustatuko du. Jakintza, azterketa kritikoak eta giza eskubideak sustatzeko jarreraren garapena bildu beharko dituzte metodo horiek.

k) Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzak adierazitako printzipio orokorretan oinarrituko den material didaktikoari buruzko **ikerketak** eta prestaketak bultzatuko ditu.

l) Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntza **ikasteko ingurune egokiak –premiarik eta beldurrik gabekoak–** sustatzen ahaleginduko da, parte-hartzea, giza eskubideak baliatzea eta giza nortasunaren erabateko garapena sustatzeko.

m) Plana lantzeko, gauzatzeko eta ebaluatzeko prozedura eta praktika guztiek honako hauek bermatu behar dituzte:

- I. gizartearen ordezkari pluralista, gobernu kanpoko erakundeak barne,
- II. eragiketen gardentasuna,
- III. kudeaketa publikoaren erantzukizuna, eta
- IV. parte-hartze demokratikoa.

n) Gobernuko agintari guztiek giza eskubideekiko errespetua agertzen duten erakunde guztien independentzia eta autonomia errespetatu beharko dute plan nazionala gauzatzerakoan.

o) Plan honen arabera gauzatutako hezkuntza-lanak honako hauek sustatu beharko ditu:



- I. aniztasuna errespetatzea eta balioestea, eta edozein arrazorengatiko (arraza, jatorri nazionala edo etnikoa, sexua, erlijioa, adina, baldintza soziala, fisikoa edo mentala, hizkuntza, sexu-orientazioa eta abar) diskriminazio orori aurka egitea;
- II. hizkuntza eta portaera ez-diskriminatzaileak;
- III. iritzi-aniztasuna errespetatzea eta balioestea;
- IV. parte-hartzean oinarritutako trebakuntza- eta ikasketa-metodoak;
- V. giza eskubideen inguruko arauak eguneroko portaeran islatzea;
- VI. irakasleen trebakuntza;
- VII. ahalmen eta eskumen nazionalak sortzea eta indartzea, plana eraginkortasunez gauzatzeko.

### 4.3 Printzipio gidari substantiboak

Planaren zati substantiboan hiru printzipio gidari definitu dira: duintasunarena, erantzukizun publikoarena eta gizarte parte-hartzearena. Hiru horiei konnotazio berezia duten beste bi printzipio gehitu zaizkie: indarkeriaren biktimak planaren erdigunea izatearena eta erakunde demokratikoen aldarrikapenarena.

- a) **Duintasuna:** jarduera guztien ardatza giza duintasunarekiko errespetua da, existentziatik beretik hasita bizitzeko eskubidea errespetatuz.
- b) **Erakunde demokratikoen aldarrikapena:** demokraziak eta haren euskarri diren erakunde politikoek bizikidetasuna bermatzen dute, eta giza eskubideak herritarren kode etiko bilaka daitezten ahalbidetzeko benetako aukera eskaintzen dute.
- c) **Biktimak planaren erdigune izatea:** giza eskubideen urraketaren ikuspegitik bidegabeki sufritzen duten pertsonak izaki, biktimek —terrorismoaren biktimek, bereziki— *Bizikidetasun Demokratikoa Sustatzeko eta Indarkeria Deslegitimatze*ko Planaren ardatza eta plana birformulatzeko ekimenaren ezinbesteko erreferentzia izan behar dute.



- d) **Erantzukizun publikoa:** botere publikoei dagokie plana egin, onartu eta ezartzeko prozesuaren buru izateko erantzukizuna.
- e) **Gizartearen parte-hartzea:** gobernuak gizarte-eragileen parte-hartzea eta konplizitatea behar ditu, eta gizarte zibilaren indarrak aktibatzen saiatuko da, planaren helburuak erdiesteko.

Printzipio gidari substantiboak funtsezko irizpide politikoak dira; birformulazioaren edukiaren berri ematen dute, eta beharrezkoa dira planaren helburu nagusia lortzeko. Birformulazioan gehitutako irizpideek honako premisa hauek dituzte oinarri:

**Terrorismoa eta zilegi ez diren gainerako indarkeriak deslegitimatzeke helburua merezi bezala nabarmendu behar da.**

- Helburu hori birformulazioan funtsezkoa izanik, Bakean eta Giza Eskubideetan Oinarritutako Hezkuntzarako Euskal Planean ere jaso zen, “funtsezko lehentasunetako bat terrorismoaren deslegitimazioa” dela adieraziz. Halaber, nabarmendu da, bakearen aldeko hezkuntzaren beste helburuekin bat artikulatuta eraman behar dela aurrera deslegitimazioa.
- Terrorismoaren erabateko deslegitimazio etikoaren aldeko hezkuntza modu koherentean landu ahal izateko, funtsezkoa da **etikari eragiten dion edozein iritziren aurrean izan beharreko neutraltasuna zer den** egokiro ulertzea. Izan ere, neutraltasuna komenigarria da —eta are beharrezkoa— iritziok giza eskubideek ahalbidetzen duten aniztasun zabalaren parte badira. Aitzitik, neutraltasuna desegokia da, eta etsitze morala dakar, iritzi edo sinismen horiek eskubideek eskatzen dutenari aurka egiten badiote. Terrorismoaren babes, justifikazio edo ulertze oro desegokia da, beraz; eta, ondorioz, etikaren aldetik ezin onartuzkoa da ezarri zaizkigun betebeharrak unibertsalen parametroen barruan. Ez familiek, ez hezitzaileek ez eta gizarte osoak ere ezin dute neutralak izan indarkeria terroristaren aurrean.
- Terrorismoaren deslegitimazioa ez da soilik beharrezkoa terrorismoaren babes oro saihesteko. Izan ere, ezinbesteko baldintza da biktimei benetako eta erabateko aitortzea egiteko. Biktima gisa izan behar duten presentzia eraginkorra izan dadin, deslegitimazioa izan behar du oinarri. Horrek eskatzen du, bada, konbentzitura egon behar dugula ez dagoela terrorismoa, justifikatu, zuritu edo azal dezakeen ezein arrazoi moralik.



**Behar bezalako garrantzia eman behar zaie biktimei, bizikidetasunerako heziketa-prozesuan baliabide baliotsua diren aldetik.**

- *Bizikidetasun Demokratikoa Sustatzeko eta Indarkeria Deslegitimatze*ko Planaren helburuaren eduki nagusietako batean jaso da bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntza **ikuspegi integralaren** bidez landuko dela. Hartara, askotariko indarkeria-adierazpideak eta –formak hartu behar dira kontuan. Izan ere, komeni da zehaztea ez dela indarkeria terroristan soilik polarizatu behar. Halaber, ezin zaie garrantzia kendu Euskal Herriari lotutako terrorismoaren biktimei. Horregatik, birformulazio honek terrorismoaren biktimen lekukotasunaren presentzia beharrezkoa dela nabarmendu behar du.
- Horrek ez du esan nahi, baina, **beste indarkeria-adierazpide garrantzitsu batzuk (generoari lotutakoa, ekonomiaren eta egituraren arloko indarkeria barnean zein nazioartean, eskola barruko indarkeria edo desberdinen aurka egiten dena) bazter utzi behar direnik ikastetxeetan**. Dena den, honako hauek kontuan hartu behar dira:
  - a) indarkeria-mota horiei arreta emateko moduak eta tokiak daude dagoeneko ikastetxeetan, eta horiek bultzatzen jarraitu behar dugu;
  - b) onartu behar da curriculumean indarkeria terroristaren biktimak ez agertzeak oztopatu egin dituela hezkuntzak beste indarkeria-forma batzuetara hurbiltzeko egin dituen ahaleginak. Horrenbestez, indarkeria-forma horri behar bezala heltzeak, biktimei hurbilduz, hutsune nabarmena bete eta injustizia bati erantzuteaz gain, indarkeria-adierazpide guztietara modu osoagoan eta positiboagoan hurbiltzeko aukera ere eman dezake;
  - c) kontua ez da, beraz, biktimago zein den hierarkizatzea, baizik eta **hezkuntza-espazioak topatzea askotariko biktimengana hurbiltzeko, testuingurua aintzat hartuta eta pairatutako indarkeriaren ildotik**.
- Azpimarratu nahi dugu, terrorismoaren biktimek ez dutela espazio hori eduki, eta aurreko Planean arlo horretan jasotakoa oso eskasa zela. Printzipioz, «Dando pasos hacia la paz-Bakerako urratsak» deritzen ekimenak eskaini beharko luke espazio hori. Baina ekimen horretan ez da terrorismoaren biktima gisa duten berezitasuna aintzat



hartzan, eta «indarkeria sufritu edo sufritzen duten pertsona» gisa hartzen dira. Hori, bada, nahasgarria da indarkeria-forma bakoitzaren bereizgarritasunari dagokionez. Horren aurrean, beraz, proposatutako berrikusketan argi utzi beharko da indarkeria terroristak jasoko duela hezkuntza-arreta espezifikoak (dagozkion espazio eta moduekin), hark sortutako biktimei laguntza emanez.

- Onartu behar da terrorismoaren biktimei lekukotasunei tokia egitea hezkuntzan, beste biolentzia-forma batzuen biktimei tokia egitea baino zailagoa dela, gizarte osoak ez baitu terrorismoa gaitzesten. Baina horrek ez du inhibitzeko arrazoia izan behar, baizik eta gaitz larri horri aurre egiteko pizgarria. Biktimei lekukotasunak ikastetxeetan entzun daitezkeen arestian aipatu diren arrazoiei, beste bat gehitu behar zaie. Izan ere, testigantza horien bidez, hezkuntzak lagundu egingo du indarkeria terrorista benetan irmoki gaitzesten duen gizartea eraikitzen. Argi dago hezitzaileek hainbat zailtasuni egin beharko dietela aurre. Horregatik, erakunde publikoek lagundu egin behar diete, euren lana aurrera eramateko behar dituzten prestakuntza- eta laguntza-baliabide guztiak emanez.

**Biktimek, oro har, eta terrorismoaren biktimek bereziki, presentzia zuzena eta aktiboa izan dezaten bultzatu behar da, aurrez aurreko presentzia baztertu gabe**

- Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko 4/2008 Legeko 9.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, ***“balio demokratikoak eta giza eskubideak sustatzeko egoki irizitako ekimenetan, terrorismoaren biktimei lekukotza eta partaidetza kontuan hartuko dira.”***
- Euskadiko Eskola Kontseiluak berriki kaleratu duen txostenean adierazitakoaren arabera, ***“biktimei lekukotza balio handiko baliabide pedagogikoa da eta bizikidetzarako hezkuntzaren prozesuan laguntzen du, baldin eta bere egokitasuna irizpide pedagogikoen eta aniztasunezkoen arabera erabakitzen bada. Jarduera, metodologia, denbora eta baliabide egokienak ikastetxeek zehaztu behar dituzte, beren autonomia erabiliz.”***
- **Bizikidetasun demokratikorako heziketa-prozesuetan biktimek presentzia izan dezaten aldezteak —ikaslearen ikaskuntza prozesura bideratuta, betiere— eskatzen du, presentzia hori ezin dela zeharka edo ordezkarien bidez gauzatu, baizik eta zuzena eta aktiboa izan behar duela. Hori guztia, jakina, aintzat hartuta hezkuntza-proiektua ez dela biktimei lekukotasunaren zerbitzura**



egongo, baizik eta lekukotasun horiek hezkuntza-proiektua indartzeko balio behar dutela. Planaren birformulazioa gauzatzean, bermatu egingo da hori bera egingo dela gizartean polemika handiena pizten duten biktimekin, hau da, terrorismoarekin biktimekin.

- Biktimen presentzia zuzena eta aktiboa eskatzeko arrazoi moralak eta pedagogikoak askotarikoak dira:
  - a) Biktimak baztertzeko —horrek dakarren bidegabekeriarekin— arriskuaz prebenitzen gaitu. Horretarako, esaterako, analisi alde bakarrekoa —ia guztiz— nabarmendu behar da hala indarkeriari eta indarkeri zaleei nola bizikidetasun demokratikoan oinarritutako etorkizunera bideratutako jarrerari dagokienez.
  - b) Biktimei hitza ukatuta, biktimen ordezkari gisa edo bizirik atera diren biktimei buruz paternalismoz hitz egitera bultzatzen gaituzten jarrerak saihesten dira: biktimek berek adierazi behar dituzte euren esperientziak.
  - c) Moralari lotutako galderak egitera bultzatzen gaituen hurbiltasuna ematen digu, zehatza, ihesbideetarako aukerarik ematen ez duen hurbiltasuna.
  - d) Heziketaren bidez indarkeriarekin aurrez aurre jartzeko behar dugun oinarritzko «edukia» ematen digu. Eduki hori, jakina, pedagogikoki landu egin behar da, behar diren garapen-tresnak baliatuta.
  - e) Indarkeria-egoeren aurrean sortzen diren jarreretara modu kognitiboan, emozionalean eta motibazionalean hurbiltzearen eta ondorio guztietarako biktimaren presentziak zabaltzen duen indar inspiratzailearen arteko beharrezko sintesia dakar.
  - f) Instantzia kritikoa, deserosoa, baina funtsezkoa da norbait justifikazioaren gaira modu okerrean hurbiltzen denerako, edo gai zailak —adiskidetzea, kasu— jorratzen direnerako.
  - g) Hezkuntzak biktimen aitopenearen arloan duen zeregina aurrera eramanez ahalbidetzen du.
  - h) Indarkeriarekin duten harremana nola bizi izan duten eta sortutako trauma nola gainditu duten ezagutzeko aukera emango du.





- **Biktimen lekukotasunari presentzia emateko askotariko moduak** daude: hainbat motatako dokumentutan bildutako testigantzak edo pairatutako biktimizazioaren deskribapenak; biktimen presentzia fisikoa ikasgeletan... Modu bakoitzak bere abantailak eta mugak ditu pedagogiaren ikuspegitik. Horregatik, planaren birformulazioan komeni da argi uztea irizpide pedagogikoen arabera erabakiko dela zein den toki eta une bakoitzerako metodorik egokiena, baina, betiere, kontuan hartuta bi presentzia-moduak erabiltzea izango litzatekeela onena. Beste modu batean esanda, biktimen lekukotasunaren presentzia ikasgeletako presentzia fisikoaren bidez gauzatu ahal izango da, baina aniztasun- eta pedagogia-irizpideen aplikazioak eta ikastetxeen autonomiak baldintzatuko du erabakia.
  
- Horietatik guztietatik ondorioztatu da, beraz, ezin zaiola a priori betorik jarri terrorismoaren biktimen presentziari; aitzitik, presentzia hori bultzatu egin behar da. Hori, bai, presentzia hezkuntzaren esparruan gauzatzekoa denez, zentzuzkoa da presentzia esparru horretako eskakizunei egokitu behar zaiela eskatzea (aldi berean, esparru horri eskatu behar zaio errespetuan oinarritutako klima sortu eta harrera abegitsua egin behar diola biktimari). Hain zuzen ere:
  - a) Biktimak giza eskubideen arloari lotutako lekukotasunak eta gogoetak eskainiko ditu eta arrazoizko inpartzialtasuna izango du ideia eta sinesmenenen aniztasunaren errespetuan justifikatutako jarrera partidario legitimoei dagokienez.
  - b) Aurrera eramaten duen jarduerak esku-hartze pedagogikoari eskatu behar zaizkion oinarrizko parametroak betetzeko beharrezkoak diren gaitasunak izango ditu biktimak.
  - c) Haren parte-hartzea ez da gertaera isolatua izango. Aitzitik, prozesu pedagogiko global batean, dagozkion jarduerekin, txertatuko da. Edonola ere, parte-hartze hori eta biktimen beste presentzia-modu batzuk izango dira prozesuaren arretagunea eta indargunea.
  - d) Tratamendu pedagogikoari dagokionez, Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculumari buruzko martxoaren 30eko 97/2010 Dekretuko 70., 72. eta 73. artikuluetan jasotako xedapen orokorretan zehaztu da ikastetxeek bete behar duten arau-esparrua. Hona hemen artikuluen horien edukia:

70. artikuluan, arloaren sarreran, biktima-mota guztien lekukotasuna ezagutzeak duen interesari buruzko aipamen hau jaso da: "Giza eskubideak lantzeko orduan zorrotz erabili behar



dira kontzeptuak, eta, gainera, enpatia bilatu behar da giza eskubideak zapaldu zaizkien pertsonekin. Horretarako, ezagutu beharrekoak dira haien lekukotzak.”

72. artikuluko 11. idatz zatian helburu hau jaso da: “Egiturezko indarkeria-egoerek (gatazka armatuak, pobrezia, muturreko desberdintasuna...), indarkeria terroristak, genero-indarkeriak, parekoen arteko indarkeriak eta abarrek eragindako giza eskubideen zapalketak ezagutzea, eta bakea, askatasuna, segurtasuna eta berdintasuna lortzeko asmoa duten ekintzak balioestea, mundu zuzen eta solidarioagoa lortzeko bitartekoak baitira.”

73. artikuluan edukiak eta ebaluazio-irizpideak jaso dira. *4. eduki-multzoa. Gizarte demokratikoak* deritzon atalaren barruan, honakoa sartu da: “Gure gizartean biktimei haien izaera aitortzea, eta egoerari aurre egiteko eta haiek gainditzeko eredutzat balioestea.”

Azkenik, ebaluazio-irizpideen artean, honako hauek sartu dira: “8. Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren oinarriko printzipioak eta balioak ezagutzea, eta baita bere bilakaera ere; eskubide-urraketaren egoerak bereiztea, eskubideak defendatzeko ekintzak proposatzea eta urraketen biktima izan direnekiko enpatia agertzea.” 8.5. Ea aintzat hartzen dituen gerra-gatazketako biktimak, terrorismoaren biktimak, genero-indarkeriaren biktimak, eskola edo laneko jazarpenaren biktimak edo beste mota bateko indarkeria-ekintzen biktimak, eta ea haiekiko enpatia eta hurbiltasuna erakusten duen.”

- Azkenik, bai Herritartasunerako Hezkuntzaren arloan bai gainerako arloetan jaso egin beharko da, **ikastetxeei dagokiela, euren autonomia baliatuz, Curriculumaren Dekretuan ezarritako irizpideak zehazteko erabakia**. Hori guztia bat dator Euskadiko Eskola Kontseiluak idatzitako txostenaren edukiarekin. Haren arabera: *“ikastetxeek biktimaren kontzeptuaren inguruan bete beharreko araubidea eta eman beharreko tratamendu pedagogikoa Dekretuaren 70., 72. eta 73. artikuluetako arau orokorretan xedatzen da. Gainerakoan, Herritartasunerako Hezkuntza arloan beste arlo guztietan bezala, ikastetxeei dagokie, beren autonomia erabiliz, curriculumaren dekretuan finkatutako irizpideak zehazteko erabakia.”*



## Hezkuntza-eragile garrantzitsuen arteko koordinazioa sustatu behar da

Planak eragile-sare handi bat biltzen du, eta eragile horiexek hartu beharko dute beren gain proposatutako programa konplexua. Hasiera batean helburua laudagarria bada ere, hain zabala izateak eta eragileen eta eremuen artean hierarkiarik ez egoteak plana sakabanatzea eta bakoitza bere kaxa ibiltzea ekar dezakete.

Horregatik, plana birformulatzean, beharrezkoa da definitzea zein diren lehentasunezko eragileak eta eremuak, betiere hasierako zabaltasunari uko egin gabe. Horri, «zati operatiboa» den aldetik, hurrengo atalean ekiten zaio. Hemen, dena den, ohar laburra egiten da oinarrizkoa denaz: hezkuntza-eragile garrantzitsuen eta dagozkien eremuen arteko koordinazioa bermatu beharraz. Horri dagokionez, lau eragile azpimarratu behar dira:

- **Familia**, sozializatzeko oinarrizko esparrua eta balioak transmititzeko funtsezko elementua den aldetik. Haren eragin handia azpimarratzen da, hain zuzen ere, indarkeriazko fenomenoek eta portaerak direla-eta, eta, bereziki, ETAren terrorismoaren aurrean belaunaldi berriek duten jarrera nondik datorren aztertzen duten ikerlanetan. Terrorismoa deslegitimatze beharrezkoa da familiak ere arduraz parte hartzea hain beharrezko eta nahitaezko den zeregin horretan.
- **Hezkuntza-sistema formala**, eskola-esparruan egin beharreko ekimenena. Egia da, planean aipatzen den bezala, askotan sistema horri gehiegi eskatzean zaiola, larregi espero dela harengandik; are gehiago: beste leku batzuetan egin beharko zena ere haren esku uzten da. Baina egia da, baita ere, bereziki zaindu beharreko eremua dela, bertan zabaldu behar delako hezkuntza-proposamena oro har. Funtsezkotzat jo behar dira esparru horretan bete beharreko ekimenak: eta ez soilik espezifikoa (herritartasunerako hezkuntza eta biktimen lekukotasuna emateko unitate didaktikoak), baizik eta ikastetxe osoari eragiten diotenak ere bai, horrela, euren presentzia orokortze eta normalizatzeko aldera aurrera eginez.
- **Udalak**. Herritarrengandik gertuko erakundeak izanik, prestakuntza integrala lortzeko elementu garrantzitsuak dituzte. Sistema konplexuak dira eta, aldi berean, heziketa-eragile iraunkorrak, pluralak eta poliedrikoak, eta heziketaren kontrako faktoreei aurre egiteko gauza. Balio hori abiapuntu, erakunde horien arteko lankidetzak bultzatu eta indartu beharra dago. Izan ere, heziketa-gaitasuna eta gizalegezko



zeregina dutenez, herritartasun demokratikoaren balioak sustatu eta espazio publikoa bizikidetasun-espazioa bihurtu dezakete.

- **Hedabideen** eremua, gaur egungo terminoaren zentzu konplexuan. Horrenbestez, prentsa idatzia, irratia eta telebista barne hartzeaz gain, ezberrik gabe, ordenagailuak eskaintzen dituen aukera guztiak ere sartuta, baita sakelako telefonoarenak ere. Erakunde publikoek ardura berezia dute hedabide publikoen gainean (EITB kasu). Horrenbestez, bereziki zainduko dute hedabide horien heziketa-zeregin informalek aurreko irizpideak bete ditzatela, eta, komeni den heinean, gizalegezko hezkuntza inplizitua helburu duten ekimen zehatzak suspertu ditzatela. Jakina, heziketa-sisteman bezala, aldi berean, hedabidearen berezko eskakizunak errespetatu beharko dituzte.

#### 4.4 Antolamendu-printzipio gidariak

Planaren birformulazioaren antolamendu-printzipio gidariak bat datoz *Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzako Euskal Planean* identifikatutako printzipioekin (integritasuna, deszentralizazioa, koordinazioa, osagarritasuna, plangintza eta ebaluazioa), baina egokitu egin dira, birformulazioan sartutako Helburuarekin bat.

Planaren helburu nagusia lortzeko aukeratutako metodologiaren eta prozeduren berri ematen duten irizpideak adierazten dituzte printzipio horiek. Antolamendu-irizpide instrumentalak dira, aldi berean, lehenago azaldutako printzipio gidari substantiboak aplikatzearen ondorioz eskatutakoaren eraginpean daudenak.

Horregatik, Planaren antolamendu-printzipio gidariak erantzukizun publikoaren eta gizarte-arloko parte-hartzearen printzipio substantiboen nahitaezko ondorio dira; hortaz, batez ere Plan berean inplikatutako sektore publikoa antolatzeko moduari egiten diote erreferentzia.

Planaren helburua betetzeko nahitaezkoa den esku-hartze publikoaren ereduari lotuta, honako printzipio hauek agertzen dira:

- 1) **Integritasuna**
- 2) **Deszentralizazioa**
- 3) **Koordinazioa**



#### 4) Osagarritasuna

#### 5) Plangintza

#### 6) Ebaluazioa

### INTEGRALTASUNA

*Bizikidetasun Demokratikoa Sustatzeko eta Indarkeria Deslegitimatze*ko Planaren xedea euskal gizartean gai horiei buruzko sustapen orokorra egitea da, gizartearen sentikortze eta trebakuntza osoa lortzeko. Hori dela-eta, hezkuntzako euskal politika zeharkakoa eta alde anitzekoa izateko helburuarekin egituratu da, eta EAEn diharduen sektore publiko osoa hartzen eta konprometitzen du. Osotasun integrala izan behar dena zatika arautu edo kudeatuz gero, politika hori makalduko litzateke, eta haren helburua lortzea eragotziko.

### DESZENTRALIZAZIOA

Bizikidetasun demokratikoa sustatzeko eta indarkeria deslegitimatze euskal politika EAeko zenbait administrazioen eta erakunde-eremuren ardura da. Sektore-eskumenen banaketak politika horri eragiten dio zeharka. Hori betez, erakunde komunek, lurralde historikoen eta udal eta mankomunitateek alor horretako eskumen zehatz eta zuzenen ardura hartzen dute beren gain. Plan honek ez dakar murrizketarik gure erkidegoaren deszentralizazio politikoan. Aitzitik, giza eskubideak eta bakearen kultura sustatzeko zereginaren zati handi bat, eta bereziki gizartearen bizikidetasuna eta eraikuntza harmonikoa hobetzea, toki- edo udal-kudeaketaren esparruan kokatzen da, subsidiariorotasun-printzipio osagarriaren arabera.

Orobat, EAeko administrazioen (Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak eta udalak) arteko eskumen-banaketaren berezitasunaren ondorioz, beharrezkoa da gai honetan garatzen dituzten eginkizunak egokitzea, administrazio guztien jardun-ahalmena Planaren helburu nagusira egokitzeko.

### KOORDINAZIOA

*Bizikidetasun Demokratikoa Sustatzeko eta Indarkeria Deslegitimatze*ko Planaren helburua da inplikaturako erakunde-esparruen sistematizazioa eta koordinazioa lortzea, arlo horietan euskal hezkuntza-politika bat sortzeko, helburu bakarrarekin: estrategia konpartituekin bat egitea. Horrela, beraz,



Euskal Planak bere gain hartzen du komunikaziorako eta koordinaziorako ildo egokiak bermatzeko premia, hiru mailatan:

- a) Jaurlaritzaren eskumeneko sailen artean.
- b) EAEko organo betearazleen artean (komuna, foralak eta tokikoak).
- c) Inplikaturako eremu publikoen eta gizarte-taldearen artean.

Modu osagarrian, Eusko Jaurlaritza, Estatuaren Administrazioa eta Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuk koordinatzeko mekanismoak ezartzea aurrekusi da, baita presentzia izatea ere Planari euskarri tekniko eta estrategikoa ematen laguntzen dioten nazioarteko esparruetan, zeinak dokumentu honen alderdi operatiboan zehazten baitira (5. kapitulua. Zati Operatiboa: planaren eragileak, antolaketa eta kudeaketa).

#### OSAGARRITASUNA

Duintasunaren eta erantzukizun publikoaren printzipio substantiboak egituratzeko, ezinbestekoa da bizikidetasun demokratikoa eta indarkeriaren deslegitimazioa eta horiei dagokien gizarte-trebakuntza lortzeko beharrezkoak diren programak eta zerbitzuak ahalik eta zabaltasun eta intentsitate handienarekin osatzea. Eta hori bai jarduera publikoetatik, baita gizarte-ekimenetik ere. Erakunde publikoek gidatuko eta ezarriko dituzte esku hartzeko tresnak, gizarte-ekimenak betetzen ez dituen beharrei bereziki erreparatuz. Gizarte-ekimenak Planaren helburuak bermatzen dituen esparruan, berriz, erakundeek gizarte-erakundearen autonomia bereziki kontuan hartuz eta errespetatuz garatu beharko dute beren gidaritza eta erantzukizun publikoa. Halaber, baliabideak esleitu beharko dituzte bikoiztasun disfuntzionalak saihesteko, baina dituzten betebeharrak publikoak inola ere utzi gabe.

Premia orokorreari dagokienez, osagarritasuna, aurreko paragrafoan ulertzen denaren arabera, Plan honen ezinbesteko jardun-ardatza da. Jarduera publiko gehienetarako aldarrikatzen den osagarritasun hori osatu behar da, ordea, espezializazio-printzipio subsidiario batekin, premia espezifikokoak dituzten kasuetarako, horiek orokortzerik ez dagoela egiaztatuta dagoenean, baldin eta beharrezko konpentsazioak badira, gizartearen sustapena eta gaikuntza egiteko bizikidetasun demokratikoari eta indarkeria deslegitimatzeari dagokionez. Edozein modutan, espezializazioa orokortasunaren subsidiarioa da eta erantzukizun publikoaren esparruan sartzen da hori ere.

#### PLANGINTZA

*Bizikidetasun Demokratikoa Sustatzeko eta Indarkeria Deslegitimatzeko Planaren ondoriozko programek eta ekintzek baliabideen plangintza eta*



hornidura egokia eskatzen dute, jardun-programa sistematikoa, koordinatua, etengabea eta iraunkorra lantzeko.

## EBALUAZIOA

*Bizikidetasun Demokratikoa Sustatzeko eta Indarkeria Deslegitimatzeko Plana* tresna bereziki malgua izateko asmoarekin sortu da, etengabe egokitu eta hobetu ahal izan dadin. Halaber, esku hartzeko tresnak eta programak etengabe eguneratu eta berritu nahi dira Planaren bidez, ebaluazio homogeen, aldizkako eta iraunkor batean oinarrituta.

Planaren etengabeko ebaluazioa partzialki edo modu globalean egin ahalko da.

### 4.5 Ildo estrategikoak, Helburu orokorrak eta Helburu espezifikoak

Planaren birformulazioak *Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzako Euskal Planean* identifikatutako oinarritzko lau lerro estrategikoak gordetzen ditu, zati operatiboan definitzen diren jarduerak egituratzeko balio dutenak.

- 1. Gizartea sentikortzea**
- 2. Gizarte-trebakuntza**
- 3. Erakunde-trebakuntza (ahalduntzea)**
- 4. Koordinazioa (bultzatzea)**

Lerro estrategiko horien inguruan birformulatzen dira helburu orokorrak eta espezifikoak, lehenik zeudenak osatze aldera, bizikidetasun demokratikoa sustatzean eta indarkeriaren deslegitimatzean arreta jartzen duen foku berri bat ematen saiatuz.

#### 1. GIZARTEA SENTIKORTZEA

Helburu orokorra: Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko kulturaren balioak zabaltzea, eta, bereziki, bizikidetasun demokratikoaren eta indarkeria deslegitimatzearen oinarri direnak.

Berariazko helburuak:



1. Euskal gizartea informatzeko eta sentikortzeko kanpainak egitea.
2. Sentikortzeko materialak egitea.
3. Euskal gizarte osoa sentikortzera zuzendutako esku-hartzeak antolatzea eta optimizatzea.
4. Sektore estrategikoei plana zabaltzen eta horretan sentikortzen esku hartu dezaten sustatzea.

## 2. GIZARTE-TREBAKUNTZA

Helburu orokorra: euskal gizartea Giza eskubideetan eta Bakearen aldeko Hezkuntzan trebatzea, eta, bereziki, bizikidetasun demokratikoaren eta indarkeria deslegitimatzearen oinarri diren balioetan.

### Berriazko helburuak:

1. Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzako programa integralak sortzea eta indartzea, eta bizikidetasun demokratikoaren eta indarkeria deslegitimatzearen ikuspuntua sartzea programotan.
2. Material didaktikoak prestatzea.
3. Lehenetsuneko biztanle-sektoreak prestatzeko eta trebatzeko programak garatzea.
4. Gogoeta, azterketa, eztabaida eta ikerketa sustatzea.

## 3. ERAKUNDE TREBAKUNTZA (ahalduntzea)

Helburu orokorra: Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren, bizikidetasun demokratikoaren eta indarkeria deslegitimatzearen esparruan instituzioek eta erakundeek egiten duten lana indartzea.

### Berriazko helburuak:

1. Gizarte-, hezkuntza- eta erakunde-arloetan dauden premiak ebaluatzea.
2. Programa eta proiektu integralak egin, garatu eta ebaluatu daitezkeen babestea, eta bereziki, bizikidetasun demokratikoaren eta indarkeria deslegitimatzearen arreta jartzen dutenak.
3. Arau-esparru iraunkor bat eta baliabide-esparru bat (informazio-, prestakuntza-, finantziario-, babes-, laguntza tekniko, ikerketa eta garapenerako baliabideak) garatzea





inplikaturako administrazio, sare, antolakunde eta eragileentzat.

4. Egituren, eragileen, eskumenen eta harremanen egituren sarea antolatzea, esku-hartzearen oinarri.

#### 4. KOORDINAZIOA (Bultzatzea)

Helburu orokorra: giza eskubideen eta bakearen aldeko hezkuntzaren politikak gidatzea, bereziki, bizikidetasun demokratikoa eta indarkeriaren deslegitimazioa sustatzeko politikei dagokienez.

##### Berariazko helburuak:

1. Kudeaketa- eta koordinazio-egiturak dinamizatzea.
2. Jarduera publikoak eta pribatuak bideratzea.
3. Eragile eta sektore estrategikoen parte-hartzea eta inplikazioa sustatzea.
4. Euskal politika publikoak sustapen-, koordinazio-, garapen- eta ebaluazio- korrante nazioartekoetan sartzea.

### 4.6 Birformulazioa laburtuta

#### **Birformulazioaren helburu orokorra:**

Terrorismoa deslegitimatzea eta bizikidetasun demokratikoa bultzatzea euskal gizartean, herritarren jarrerak alda daitezen ahalbidetuz, tolerantziaren, aniztasun politikoaren eta giza eskubideen kontzientzia eta sustraitzea indartzeko, herritarren artean eta erakundeetan. Indarkeria terrorista erabat deslegitimatzea aldeaz aurreko baldintza beharrezkoa da askatasunean oinarritutako bizikidetasun demokratikoa lortu ahal izateko.

#### **Birformulatutako planaren printzipio gidariak:**

**Duintasuna:** jarduera guztien ardatza giza duintasunarekiko errespetua da, existentziaz beretik hasita bizitzeko eskubidea errespetatuz.

**Erakunde demokratikoak aldarrikatzea:** demokraziak eta haren euskarri diren erakunde politikoek bizikidetasuna bermatzen dute, eta giza eskubideak



herritarren kode etiko bilaka daitezen ahalbidetzeko benetako aukera eskaintzen dute.

**Biktimak planaren erdigune izatea:** giza eskubideen urraketaren ikuspegitik bidegabeki sufritzen duten pertsonak izaki, biktimek —terrorismoaren biktimek, bereziki— *Bizikidetasun Demokratikoa Sustatzeko eta Indarkeria Deslegitimatzeako Planaren* ardatza eta plana birformulatzeko ekimenaren ezinbesteko erreferentzia izan behar dute.

**Erantzukizun publikoa:** Botere publikoei dagokie plana egin, onartu eta ezartzeko prozesuaren buru izateko erantzukizuna.

**Gizartearen parte-hartzea:** gobernuak gizarte-eragileen parte-hartzea eta konplizitatea behar ditu, eta gizarte zibilaren indarrak aktibatzen saiatuko da, planaren helburuak erdiesteko.

#### **Birformulazioak sartutako helburuak:**

Tolerantziaren eta aniztasun politikoaren balioak zabaltzea herritarren artean.

Sistema demokratikoa eta bere erakundeak aldarrikatzea, bizikidetasunaren bermatzaile eta sortzaile diren aldetik.

Euskal gizartearen baitan indarkeria terrorista deslegitimatzea, erabat eta errotik, gizarte- eta hezkuntza-eragileen jarduera koordinatuaren bidez, esparru hauek aintzat kontuan hartuta bereziki:

- Familia.
- Hezkuntza-sistema formala;
- Udalak
- Gizarte-hedabideak;

Terrorismoaren biktimak bizikidetasuna ahalbidetzen duten balio herritar eta demokratikoetan hezteko subjektu pribilegiatua direla aitortzea.

- Euskal Autonomia Erkidegoko indarkeriaren biktimen errealitatea berariaz sartu eta tratatuko da.

- Presentzia hau errealitate egiten da hezkuntza-testuinguru formalean esplizitazio kurrikularraren bitartez.



- Hori zehazteko, plataforma desberdinak erabiltzen dira (irakasgaiak, tutoretzak, programa eta jarduera bereziak...).

- Baliabide pedagogiko egokitu eta aproposak eskaintzen dira, presentzia ahalik eta zuzenena eta interpelaziozkoena izan dadin.



## 5. Zati operatiboa: planaren eragileak, antolaketa eta kudeaketa

Kapitulu hau planean tarteko diren erakunde- eta gizarte-eragileei, plana kudeatzeaz arduratuko diren organoei eta ekintzen jarraipena eta ebaluazioa egiteko ereduari buruzkoa da. Planarekin loturaren bat duten Jaurlaritzako sailen paperarekin eta ekintza-programekin zerikusia duten alderdiak, berriz, 9. kapituluan zehazten dira.

### 5.1 Erakunde-eragileak, eta gizarte zibilaren, komunikabideen eta ikastetxeen papera

Heziketa-ekintzak, oro har, eskola-sistema edo hezkuntza formala gainditzen du. Hori dela eta, edozein pertsonaren gizarteratze-prozesua familia- eta talde-ingurunean ere gertatzen da –batez ere, haurtzaroan eta nerabezaroan–, eta hezkuntza ez-formalarekin (gizarte zibileko antolakundeek hezkuntza intenzional ez-arautua) eta informalarekin (hezkuntza ez-intenzional eta ez-arautua, baina esanguratsua gizarte modernoetan, hala nola masa-komunikabideei, eta teknologia berri eta gizarte-sareei dagokiena) zerikusia duten prestakuntza-ekintzen eraginaren bidez.

Ikuspegi horretatik, planaren zehaztapenean eta abian-jartzean parte hartzeko ardura duten **eragileak** asko dira, eta oso desberdinak beren eskumen, erantzukizun, ahalmen eta esku-hartze eremuetan. Besteak beste, hauek aipatu behar dira: Eusko Jaurlaritzako Sailak, aldundiak eta udalak, ikastetxeak, bai eta antolakunde zibilak eta komunikabideak ere. Horregatik, planaren konplexutasuna eta zabaltasuna dela-eta, eragileei, programei eta esku-hartze eremuei dagokienez, beharrezkoa da **erakunde-eragileak**, eragileon eginkizunak eta esku-hartze moduak zehaztea, bai eta **euskal elkarte-mugimenduaren** eta **komunikabideen** papera argitzea ere. Bakarrik horrela saihestuko dugu –aurreko atalaren amaieran adierazten genuenez– sakabanaketaren eta nor bere kasa ibiltzeko arriskua.



- **Erakunde-eragileei** dagokienez, **Eusko Jaurlaritza** arduratuko da plan bere osotasunean lideratzeaz, koordinatzeaz, dinamizatzea eta bultzatzeaz. Horretarako, lehendakariaren zuzendaritza pean, Sailarteko Batzordeak –organo hori osatzen dute Justizia eta Herri Administrazio Sailak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Herrizaingo Sailak, Kultura Sailak, eta Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak– birformulatu egin du Plana, eta berriz zehaztu ditu eskumenak, erantzukizunak, esku-hartze eremuak, ekintzak eta aurrekontuak, eta sail horiei lotutako zuzendaritzek ere parte hartu dute (Giza Eskubideen Zuzendaritza, Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza, Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritza, hurrenez hurren). **Aldundiek** eta **udalek**, era berean, euren ekintza eta sareak garatzeko ahalmena dute planean ezartzen diren irizpide orokorren esparruan, eta, gainera, Jaurlaritzaren ekintza indartzeko paper garrantzitsua ere badaukate. Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzako 2008-2011rako Euskal Planean sartuta dauden hiru foru-aldundien eta Eudel-en ekintzen edukia ere hitzez hitz jasotzen da 9.6 kapituluan, betiere planaren birformulazioaren ondorioz egin litekeen eguneratzeari kalterik egin gabe.
- **Euskal elkarte-mugimenduari** dagokionez, bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzarekin zerikusia duten antolakunde zibikoek ere lagun dezakete gure herrian bizikidetasun demokratikorako kultura bat sendotzen, gizarte osoari zuzendutako euren hausnarketan, euren proposamenen eta euren ekintzen bidez, eta, gainera, heziketa-paper bat bete dezakete euren kide, laguntzaile eta jarraitzaileen artean.

*Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzako Euskal Planak* **Elkarteen Eztabaidagune** delakoa sortzea bultzatu zuen, gune horrek aukera eman behar baitzuen euskal gizarte zibila plan horren helburuekin lotzeko. Dena dela, azkenean ez zen izenpetu lankidetzara hori formalizatzeko aurreikusita zegoen hitzarmena. Birformulazioan ere lotura hori gauzatzearen aldeko apustua egiten da, bai eta oraindik eratzeko dagoen aholku-batzordean elkarte horien parte-hartzea bultzatzearen aldekoa ere.

Lan horretan bertan, esanguratsuak dira gizarte zibileko beste erakunde batzuk, hala nola familia-elkarteak eta ikasleen guraso-elkarteak.

- Gizarte modernoetan, masa-**komunikabideek** mezuak hedatzeko eta kultur aldaketak sustatzeko ahalmen handia daukate. Beraz, giza



eskubideen eta bizikidetasun demokratikoaren arloan egin dezaketenekarpena esanguratsua izan liteke.

*Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzako Euskal Planaren* esparruan, lankidetzahitzarmen bat izenpetu zen EiTBrekin, 2007ko maiatzean, plan horretan aurreikusitako ekintzak gauzatzeko. Kontuan izanda hedabideen edukiak bizikidetasun demokratikora eta indarkeriaren deslegitimaziora bideratu behar direla, eta birformulazioan proposatzen diren helburuen segimendu eta ebaluazio egokia ahalbidetuko duten koordinazio-egiturak indartzeko beharra dagoela, Lehendakariak, plan honen bultzatzaile denez, hitzarmen bat izenpetuko du erakunde publiko horrekin. **Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzaren eta Komunikabideen Kontseiluaren** aldaketa sustatzearen aldeko apustua egiten da, osaera aldatzeko eta Lehendakariak txertatzeko –birformulazioan egozten zaion lidergoarekin bat etorrira–, eta, **Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzaren eta Komunikabideen Kontseiluko Idazkaritzari** dagokionez, idazkaritza hori indartzea sustatuko da, inplikaturako arloetako zuzendariek presentzia nabarmenagoa izango dutela.

Hala ere, gizarte-komunikabideekiko lankidetzahori ez da soilik mugatu nahi eremu publikoetara, beharrezkoa baita planteamendu berri horietara hedabide pribatuak ere hurbiltzea, eta are Internet bidezkoak, gizarte-sareen parte-hartzearen bitartez.

- Garrantzitsua da aipatzea, azkenik, eragile horietako askoren ekintzalana (erakundeak, gizarte-antolakundea, familiak,...) hezkuntza-eremuan biltzen dela eta, zehazkiago, **ikastetxeen** eguneroko bizitzan. Ikastetxeak, hain zuzen ere, subjektu bereziki aipagarriak dira, erabakitze eta kudeatzeko autonomia baitute, hezkuntzako erregelamenduetan aitortzen denez.

## 5.2 Planaren kudeaketa eta koordinaziorako organoak

Planak, estrategia operatibo moduan, hiru mailako harreman-eredu bat hartzen du kudeaketarako: **sailen artekoa** (Eusko Jaurlaritza), **erakundeen artekoa** (aldundiak, udalak, giza eskubideen inguruko erakundeak, komunikabide publikoak...) eta **soziala** (gizarte-antolakundeak). Arestian ere azpimarratuta geratu da lehendakariak plan honetan beregain hartzen duen lidergoaren erantzukizuna; hori dela eta, Lehendakariari egozten zaizkio goi-koordinazioko eta bultzada orokorreko eginkizunak, eta etengabeko harremanean egongo da Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin.



Sailen arteko koordinaziorako gunea, berriz, **Sailarteko Batzordea** izango da, eta erakundeen arteko eta gizarte zibilarekiko koordinaziorako, berriz, **Aholku Batzordea**. Ildo horretatik, kudeaketako eta koordinazioko honako irizpidea hauek hartu dira:

- 2006ko urriaren 17ko Gobernu Kontseiluaren Erabakiaren bidez sortu zen Giza Eskubideetan oinarritutako eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren **Sailarteko Batzordeak** izena aldatuko du, eta Bizikidetasun Demokratikoa Sustatzeko eta Indarkeria Deslegitimatzeako Sailarteko Batzordea izango da, eta bere helburuak, osaera eta eginkizunak birformulazioaren planteamendu berrietara egokituko ditu. Batzorde hori arduratuko da, hain zuzen ere, 2012/15 planaren lehen zirriborroa sustatzeaz.

Nazioarteko erakundeekiko zuzeneko harremana (Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioa, UNESCO eta Europako Kontseilua), berriz, Justizia eta Herri Administrazio Saileko Giza Eskubideen Zuzendaritzak hartu du bere gain.

- **Giza Eskubideetan eta Bakean Hezteko Aholku Batzordeak**, 31/2009 Dekretuaren bitartez sortutako parte-hartze, koordinazio eta bultzako organoak, izena aldatuko du, eta Bizikidetasun Demokratikoa Sustatzeko eta Indarkeria Deslegitimatzeako Aholku Batzordea izango da, eta batzordearen osaera birformulazioaren planteamendu berrietara egokituko da. Organo hau ez dago oraindik formalki eratuta, eta, beraz, ez da zehaztu orain arte batzordearen laneko metodologia, eta gai hori zehaztea ezinbestekoa da gizarte-partaidetzako eta erakunde arteko koordinazioko bide eraginkorra izan dadin, hau da, ekintza osagarriak proposatzeko eta planaren ebaluazioari buruzko iritzia emateko gaitasuna izango duen organoa izan dadin, hain zuzen ere. Nolanahi ere, batzordearen eginkizunak eta funtzionamendu-erak antolakunde zibiletan eta ordezkaritza duten herri-administrazio guztien autonomiatik gauzatu behar dira. Horregatik, batzordearen osaera berrikusiko da, eta parekidea izango da, eta funtzionamenduan jartzeko beharrezko laneko batzordeak eta metodologia zehaztuko dira. Osaerari dagokionez, aurreikusita dago batzordea handitzea, honako hauen parte-hartzearekin: Lehendakaritza, biktimen elkarten ordezkaritza bat, Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluak (Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko ekainaren 19ko 4/2008 Legeak sortuak) zehaztu beharko duena eta EITB. Bere garaian aztertuko da Aholku Batzordeak bere lanarekin jarraitzeko edo ez jarraitzeko aukera, planifikatutako aldia amaitzen denean, dela etorkizuneko plangintzan laguntzeko, dela bizikidetasun demokratikoaren sutapenarekin eta indarkeriaren deslegitimazioarekin lotutako jardueri ekiteko.



Aholku Batzordeak idazkaritza tekniko eta administratibo bat izango du Giza Eskubideen Zuzendaritzaren eskutik.

Euskal Autonomia Erkidegoko Eskola Bizikidetzaren Behatokia, apirilaren 21eko 85/2009 Dekretuaren bitartez sortua, Aholku Batzordeari lotuko zaio, informazioa bi noranzkoetan bideratzeko asmoz, hau da, eskola-ingurunean eta gizartean, bizikidetasun demokratikoari dagokionez, izaten diren beharrizan eta aldaketei buruzko informazioa bideratzeko.

### 5.3 Programatutako ekintzen segimendua eta ebaluazioa

Planaren segimendu- eta ebaluazio-prozesurako erakunde-arkitektura **Sailarteko Batzordean, Aholku Batzordean** –hura da erakunde arteko koordinazio-organoa eta elkarte-mugimenduarekin– eta Idazkaritza Teknikoan oinarritzen da; hori guztia, aipatu dugunez, lehendakariaren lidergoaren pean. Planaren segimendurako eta ebaluaziorako beharrezko informazioa lortzeko eta biltzeko erantzukizunak egozteko eredu horrek, bestalde, harreman estua eskatzen du tarteko diren erakundeen, gizarte-eragileen eta komunikabideen artean.

Bereziki, planean programatutako ekintzen segimendurako eta ebaluaziorako, beharrezkoa da ekintzok egokiro zehaztuta egotea ekintza bakoitzaren adierazleen –kuantitatiboen zein kualitatiboen– formulazioan, ekintzen tenporalizazioan eta betetze-epeetan eta, are, ekintzok gauzatzearen kuantifikazio ekonomikoan.

Giza Eskubideen Zuzendaritza arduratuko da Jaurlaritzako sail guztien ebaluazio partzialak eta foru-aldundiek, bai eta udal-mailatik ere, beren autonomiatik igortzen dituzten ebaluazio partzialak zentralizatzeari eta bateratzeaz. Halaber, Bizikidetasun Demokratikoaren eta Komunikabideen Kontseilutik EITBrekiko hitzarmenean planifikatutako ekintzen gauzatze-mailari buruz igortzen duten ebaluazioa bateratzeaz arduratuko da.

Sailarteko Batzordeari dagokio ebaluazioak onartzea, horren ondoren Gobernu Kontseiluari bidaltzeko. Kontseiluak, onartu ondoren, komunikazio gisa igorriko dio Eusko Legebiltzarraren Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordeari.

Giza Eskubideetan eta Bakean Hezteko Aholku Batzordeari ere igorriko zaio, kontsulta-irizpen ez-lotesle bat eman dezan ebaluazio horri eta





ebaluazioaren hobetzeko proposamenei buruz. Halaber, giza eskubideen nazioarteko organismoek ere bidaliko zaie ezagut dezaten.

Plan birformulatuaren ebaluazioa, betiere, ezarritako epearen amaieran egingo da, eta honako hauek jasoko ditu: ekintza eta programen betetze-mailari buruz ezarritako adierazleak, planaren kudeaketarako ezarri den egitura organikoaren funtzionamenduari buruzko adierazleak eta helburuek printzipio gidari eta ildo estrategikoekiko duten egokitasunari eta koherentziari buruzko adierazleak.

Erantzukizunak egozte, segimendurako eta ebaluaziorako beharrezko informazioa biltzeko iturriak eta mekanismoak, bai eta adierazle kuantitatibo, kualitatibo eta orokorrak, horietatik ezartzen ziren *Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzako 2008-2011rako Euskal Planean*, eta horiek guztiak ondorengo taulan laburtzen dira.



PROGRAMA ESTRATÉGICO	ÍNDICES CUANTITATIVOS	ÍNDICES CUALITATIVOS	ÍNDICES GLOBALES
A. Formación y capacitación.	Acciones formativas Personas capacitadas  Número de horas Presupuesto	Calidad Satisfacción Adecuación necesidades Impacto	Formaciones oficiales  Certificados emitidos
B. Asesoramiento y consultoría.	Equipos asesores Asesoramientos Procesos consultoría  Número de horas Presupuesto	Calidad Satisfacción Adecuación necesidades Impacto	Equipos profesionales oficiales  Asesoramientos
C. Producción de materiales y Publicaciones.	Guías y materiales Unidades didácticas Publicaciones  Número de horas Presupuesto	Calidad Satisfacción Adecuación necesidades Impacto	Materiales oficiales  Certificados emitidos
D. Programas de intervención.	Programas Personas beneficiarias Profesionales Técnicos/técnicas Organizaciones  Número de horas Presupuesto	Calidad Satisfacción Adecuación necesidades Impacto	Programas oficiales  Programas certificados  Profesionales acreditados
E. Documentación e Información.	Centros de documentación Puntos de información Consultas realizadas Personas beneficiarias Profesionales Técnicos/técnicas Organizaciones  Número de horas Presupuesto	Calidad Satisfacción Adecuación necesidades Impacto	Centros oficiales  Documentación certificada  Profesionales acreditados
F. Difusión y Sensibilización.	Campañas Personas beneficiarias Carteles Spots Guías de campaña	Calidad Satisfacción Adecuación necesidades Impacto	Campañas oficiales  Medios oficiales



	Apariciones en medios de comunicación Espacios (eventos, cines, etc.) Organizaciones participantes  Número de horas Presupuesto		
G. Investigación y Reflexión.	Investigaciones realizadas Seminarios, Congresos y Jornadas realizadas Personas asistentes. Medios contactados. Envíos realizados. Foros realizados Grupos de trabajo/discusión Informes emitidos  Número de horas Presupuesto	Calidad Satisfacción Adecuación necesidades Impacto	Investigaciones oficiales  Jornadas oficiales  Profesionales acreditados
H. Movilización.	Movilizaciones Personas Colectivos Medios  Número horas Presupuesto	Calidad Satisfacción Adecuación necesidades Impacto	

Indize kuantitatiboak honetan biltzen dira: pertsona onuradunen kopuruan, ordu-kopuruan, baliabideetan, produktutako materialetan, egindako ekintzetan eta gauzatutako aurrekontuan. Indize kualitatiboak, berriz, honako hauei lotuta daude: kalitatea, pertsona eta talde onuradunen gogobetetzea. Indize orokorrak ekintzen egiturazko izaerari dagozkio, produktu iraunkorrak, ofizializatuak edo herri-administrazioaren mendekoak direnez... Dokumentu erantsian txertatu ditugu jardura bakoitzerako fitxa banakakotiak, eta, gainera, beren beregi aplikaziokoak zaizkion ebaluazioko adierazleak ere txertatu ditugu fitxa horietan.

Beste alde batetik, garrantzitsua da oso jomugan edukitzea Euskal Autonomia Erkidegoko bizikidetasun demokratikoaren eta giza eskubideen egoerari buruzko diagnostikoa 2010ean zehar eguneratzea, horrek aukera emango baitu 2012-2015 aldirako planaren plangintza eta programazioa 2011n hasteko eta amaitzeko.



## 5.4 Aurrekontua

PREVISIÓN PRESUPUESTARIA			
DEPARTAMENTO	DIRECCIÓN	DOTACIÓN PRESUPUESTARIA	
		2.010	2.011
LEHENDAKARITZA	SECRETARÍA DE DOCUMENTACIÓN Y PARTICIPACIÓN CIUDADANA		150.000
JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA	DERECHOS HUMANOS	1.490.000	1.300.000
CULTURA	JUVENTUD Y ACCIÓN COMUNITARIA	168.000	358.000
INTERIOR	ATENCIÓN A LAS VÍCTIMAS DEL TERRORISMO	1.005.000	982.500
EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN	INNOVACIÓN EDUCATIVA	648.100	652.500
<b>total</b>		<b>3.311.100</b>	<b>3.443.000</b>

Aurrekontuaren % 41 Justizia eta Herri Administrazio Saitetik dator; % 19, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saitetik, % 29, Herrizaingo Saitetik, % 8 Kultura Saitetik, eta % 2, Lehendakaritza Saitetik.



## 6. Zati operatiboa: ekintzen birformulazioa

Birformulazioaren irismena jardueren mailan identifikatzeko asmoz, honen ondoren taula bat jasotzen dugu, eta taula horrek, jarduera-lerro bakoitzari buruz, 2008-2011ko Planarekin duen lotura zehazten du: *Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzako 2008-2011rako Euskal Planean* jasotako eta aurreikusitako ekintza, ekintza birformulatua, ekintza berria, desagertzen den ekintza).

	<u>Acción recogida en el PVEP</u>	<u>Acción reformulada</u>	<u>Acción nueva</u>	<u>Acción que desaparece</u>
<b><u>Lehendakaritza</u></b>				
1. Coordinación superior de la ejecución de todas las acciones del Plan, así como de los órganos de gestión y coordinación del mismo (Comisión Interdepartamental y Consejo Consultivo). Esta tarea la desarrollará en contacto permanente con la Dirección de Derechos Humanos.			X	
2. Firma del Convenio Marco de colaboración con el ente EITB para el desarrollo en los medios de comunicación públicos del programa de acción en materia de convivencia democrática y deslegitimación del terrorismo.		X		
3. Promover operaciones estadísticas que pulsen la opinión pública, en particular la de los/las jóvenes, en lo relativo a la convivencia democrática y la deslegitimación de la violencia en el País Vasco, y que a su vez permitan, a modo de evaluación del plan, obtener indicadores precisos de impacto en nuestra sociedad.			X	
<i>Iniciativa para la participación social en la construcción de la paz</i>				X



	<u>Acción recogida en el PVEP</u>	<u>Acción reformulada</u>	<u>Acción nueva</u>	<u>Acción que desaparece</u>
<b>Dpto de Justicia y Administración Pública</b>				
1. Programa de capacitación en materia de convivencia democrática y derechos humanos.		X		
2. Programa de subvenciones para proyectos para el fomento de la convivencia, la tolerancia y los derechos humanos destinado a organizaciones sociales.		X		
3. Programa de subvenciones para proyectos en materia de convivencia democrática y derechos humanos destinado a ayuntamientos.		X		
4. Elaboración de Convenio de colaboración permanente con el Foro de Asociaciones de educación para la convivencia democrática y los derechos humanos.		X		
5. Impulso para la investigación y reflexión, dentro del ámbito universitario, en materia de diversidad, tolerancia y derechos humanos.		X		
6. Fomento de estudios de postgrado en materia de derechos humanos y fomento de la pluralidad y de las instituciones democráticas.	X			
7. Programa de becas en materia de educación para el fomento de la pluralidad y las instituciones democráticas y derechos humanos.	X			
8. Programa de intervención educativa, en materia de educación para la convivencia democrática y los derechos humanos, a través del cine.		X		
9. Programa de intervención educativa, en materia de convivencia democrática y los derechos humanos, a través del teatro.		X		
10. Traducción y divulgación de textos básicos en materia de derechos humanos y convivencia democrática.	X			
11. Campaña anual de promoción de los derechos humanos y de los valores de la pluralidad política, tolerancia y defensa del sistema democrático.		X		
12. Seminarios internacionales de derechos humanos.	X			
13. Seminario sobre diversidad religiosa desde la perspectiva de los derechos humanos.			X	
14. Jornada de buenas prácticas de los municipios en materia de educación para la convivencia democrática y los derechos humanos.		X		
15. Jornada de buenas prácticas de las organizaciones sociales en materia de educación para la convivencia democrática y los derechos humanos.		X		
